PSIKOLOGIA / PSICOLOGÍA

Ainara GIL ABETE

# LEHEN HEZKUNTZAN DOLUA ETA ESKUHARTZEA GAUZATZEKO BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

# *EL DUELO EN EDUCACIÓN PRIMARIA Y RECURSOS PEDAGÓGICOS PARA SU INTERVENCIÓN*

**GBL / TFG 2014**

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
*Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea*

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
*Grado en Maestro de Educación Infantil*

**Grado en Maestro de Edicación Infantil**

**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

# LEHEN HEZKUNTZAN DOLUA ETA ESKU-HARTZEA GAUZATZEKO BALIABIDE PEDAGOGIKOAK
# *EL DUELO EN EDUCACIÓN PRIMARIA Y RECURSOS PEDAGÓGICOS PARA SU INTERVENCIÓN*

Ainara GIL ABETE

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**
Ainara Gil Abete

**Izenburua / Título**
Lehen Hezkuntzan dolua eta esku-hartzea gauzatzeko baliabide pedagogikoak / El duelo en Educación Primaria y recursos pedagógicos para su intervención

**Gradu / Grado**
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria  / Director-a**
Sonia Esarte Eseverri

**Saila / Departamento**
Psikologia eta pedagogia  / Psicología y pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**
2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**
Udaberria / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko arriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: "ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, *oinarrizko prestakuntzako modulua/ak* bidea ematen digu 47/2010 eko lege dekretuaz mintzatzera, haurren eskubide eta betebeharrak uztartuz eta derrigorrezko hezkuntza den Lehen Hezkuntzan, eskola barneko bizikidetza eta errespetua garatzen da 204/2010 foru legeak adierazten duenaren arabera. Araudiaz gain, hainbat baliabide, artikulu eta testu zientifikoren erabilera baliatuz, kasu bakoitzean aipagarriak izan diren ezagutzak garatzeko aukera eskeiniz. Bide batez, informazioaren aukeraketa zaindua ezinbesteko izan da, gaiarekin lotutako aspektu garrantzitsuenak lanean txertatu ahal izateko orduan. Ildo berean, ezaugarri, definizio edota eskuhartze desberdinen proposamen honetan, eragile espezializatu nahiz gaiarekin interesa duen edonork ulertu ahal izateko moduan adierazita dago lan osoan zehar.

*Didaktika eta diziplinako moduluak* sor ditzakeen aferak lan osoan zehar garatzen da. Bereziki dolua eta heriotzaren hastapen teorikoen azalpenean, baita prozesuak igaro behar dituen ezinbesteko pausuak zehaztean ere. Ildo berean, haurrak izan ditzakeen dolu motak deskribatzea, gure esku hartze egokia bermatzea ahalbidetzen du. Horretarako irakaslearen jarduna egokia izan dadin, hauen formakuntza eta baliabide desberdinak proposatzen dira, dolua bezalako gai konplexu bezain garrantzitsuan laguntzeko helburuarekin.

Halaber, *Practicum modulua/ak* egungo ikasgeletan behatu eta esku hartzea bide ematen du, galera egoera anitzak deskribatu eta hauetan lagundu ahal izateko argibide nahiz aholkuak emanez. Ohikoa izaten delako doluari buruzko formakuntza edota prestakuntzan baliabideen beharra izatea, bai heldu nahiz haur edota eskolako gazteen artean. Antzemandako dokumentazio eta baliabide eskasak, ikasgelan garatu ahal izateko hainbat proposamenen eskaintzaren bidez baliatzen da.

Azkenik, *aukerako modulua/ak* bidea eman digu galera egoeren aurrean egon daitekeen ezagutza eta baliabide anitzak izatearen garrantziaz. Izan ere, haurrak prozesua era positibo eta lasai batean garatzeak garrantzi erabakiorra izango baitu, haurraren garapen psikosozial eta emozionalean, nahiz gure eguneroko jardunean. Horretarako, Doluaren Pedagogian oinarritutako hainbat autoreren ekarpenak, baita

aurrera eramandako hainbat esperientzia ezagutaraziz, esku hartze egokia izaten lagunduko digu.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen duen arabera, Graduaren bukaeran hizkuntza koofizial bat ezagutzen duten ikasle elebidunek C1 maila ere izan behar dute erkidegoaren beste hizkuntzan, alegia, gure kasuan, euskaran. Hori dela eta, euskaraz hizkuntza gaitasuna erakusteko, “hitzaurrea” eta lanaren azken “ondorioak” gure hizkuntzan idatziko dira.

## Laburpena

Honako lan hau, Dolua gai zabalaren inguruan garatzen da. Bertan bi atal nagusi bereiz daitezke: lehenengoa, doluaren inguruko alderdi teorikoa eta bigarrena berriz, Lehen Hezkuntzako ikasleekin, galera lantzeko proposamen didaktikoen bilduma.

Doluaz mintzatzen garenean, ohikoena da heriotzaren ostean gertatzen den prozesua dela ulertzea, aitzitik, aipagarria iruditzen zait oinarrizkoa den kontzeptu hau argitzea, izan ere, lanaren garapena ulertzeko garaian ezinbestekoa bait da. Heriotzaz gain, dolua beste egoera mota batzuek eragin dezakeen erantzuna izan daiteke, hala nola, gurasoen banaketa, etxebizitza edo herri aldaketa edota osasunarekin lotutako galerak ere izan daitezke doluaren eragile.

Lanaren lehenengo atalean garrantzi berezia ematen zaio *heriotzari*, hau baita doluaren eragile nagusietako bat. Heriotza eta hezkuntzarekin lotutako autore batzuen ikuspegiak azaltzeaz gain, heriotza kontzeptuaren definizioa eta esanahia topa ditzakegu. Jarraian, doluaren gaineko zehaztapenak azaltzen dira, dolu motak, faseak edota pausuak, besteak beste.

Bukatzeko, bigarren atalean, Doluaren pedagogiaren azalpenaz gain, ikasgelan lantzeko proposamen didaktikoak topa ditzakegu.

*Hitz gakoak*: Dolua; heriotza; galera; doluaren pedagogia eta proposamen didaktikoak.

## Resumen

El presente trabajo se centra en el tema del duelo en Educación Primaria.  Consta de dos principales bloques, el primero se centra en la fundamentación teórica del tema, y el segundo, se trata de una recopilación de diversos recursos didácticos para poder trabajar el tema de la pérdida en el aula junto a las dificultades que pueden surgir respecto a ésta, derivadas de distintas problemáticas.

Cuando hablamos del duelo, es habitual que pensemos en el proceso que se inicia cuando una persona allegada fallece. Sin embargo, es imprescindible aclarar el significado de dicho concepto, ya que resulta imprescindible hacerlo para poder entender el desarrollo del trabajo. Cabe destacar que el duelo puede ser resultado de diversas situciones que nada tienen que ver con la muerte, como puede ser la separación de los padres, el cambio de pueblo o escuela y/o pérdidas relacionadas con la salud e integridad física.

En la primera parte del trabajo se le da especial importancia a la *muerte,* dado que es uno de los principales inductores del duelo. Además de la explicación de la visión que tienen diferentes autores sobre la muerte y educación, podemos encontrar la definición y significado de las mismas. A continuación, se exponen algunas concreciones sobre el duelo, como puede ser su tipología, fases o pasos.

Finalmente, en el segundo bloque del trabajo, además de la explicación de la Pedagogía del Duelo, encontramos una cuidada selección de recursos didácticos para poder trabajarlo en el aula.

*Palabras clave*: Duelo, muerte, pérdida, Pedagogía del Duelo y recursos didácticos.

## Abstract

This piece of work is developed over the mourning on its whole meaning. It is divided into two main parts: on one hand we can find information about the theoretical aspects of mourning and on the other hand an album with didactical proposals suitable for working on mourning with Primary school children.

When we talk about mourning, the most common idea is to understand it as a process that occurs after death. However, one should clarify this basic concept, as it is essential to understand the development of the work itself. Apart from death, mourning could be an answer for other different situations, as for example, parent´s divorces, town or house changing, the loss concerning health, etc.

A special attention is paid in the first part of this work to death, since, death is mourning´s principal agent. Apart from showing different views of death and views of some educational authors, we also can find a definition and the meaning of death´s concept. Next, concretions about death will appear, mourning types, phases, or steps among others.

Finally, in the second part, we can find an explanation of mourning´s pedagogy and also some didactical proposals to practice in the classroom.

*Keywords*: mourning, death, loss, mourning´s pedagogy and didactical proposals.

# Aurkibidea


**Sarrera**
**1. Zer da heriotza ?** 1
1.1. Heriotzaren adierazpenak historian zehar 2
**2. Heriotzaren pedagogia : Autoreak** 5
2.1. Concepció Poch, Mª Antonia Plaxats y Joan Carles Mélich 5
2.2. Vicenc Arnáiz 6
2.3. Claudia Grau Rubio 7
2.4. Agustin De La Herrán, Isabel González, Mª José Navarro, Mª Vanessa Freire eta Soraya Bravo 7
2.5. Heriotza hezkuntzan” mintegia 8
2.6. Xesca Coll 8
2.7. “Pensar, hablar de la muerte y comprometerse con la vida” 8
2.8. Natália Buesule, Emma Gil, Juan Manuel Moreno I Joan Vidal 9
2.9. Pilar Feijoo Portero 9
2.10. Madrilgo Irakaslegoaren Formakuntzarako Fakultatea 9
2.11 . “Cuadernos de Pedagogía” 9
2.12 . Biel Garriga 10
2.13 . Alejandro Dolz 10
2.14 . José Luis Villena 11
2.15 . Jordi Beltrán Del Rey 11
2.16 . Centre de Recursos Pedagógics Del Vallés Occidental IV Sant Cugat 11
2.17 . Kepa Camiña Abajas 11
**3. Heriotzaren esanahia** 12
3.1. Heriotza unibertsala da 13
3.2. Heriotza itzulezina da 14
3.3. Heriotzarekin bizi funtzioak bukatzen dira 15
3.4. Heriotzaren zergatia 16
**4.Zer da Dolua?** 17
4.1. Pausuak 20
4.1.1. Lehenengo urteko aro latza 20
4.1.2. Sumintasunaren fase kronikoa 21
4.2. Motak 22
4.2.1. Arrunta 23
4.2.2. Aurretikoa 23
4.2.3. Atzeratutakoa 23
4.2.4. Inhibitua 24
4.2.5. Geroratutakoa 24
4.2.6. Kronikoa 24
4.2.7. Konplexua 24
4.3. Faseak 25
4.3.1. Hasiera eta lehenengo krisialdia 26
4.3.2. Tarteko fasea 26
4.3.3. Amaierako fasea 26
4.4. Doluaren prozesuan eragiten duten faktoreak 27
**5. Dolua haurretan** 31
5.1. Gertutasunaren araberako galerak 33

5.1.1. Gurasoetariko baten heriotza 33
5.1.2. Anai-arreba baten heriotza 34
5.2. Doluan dagoen haurraren autoestima 35
**6. Doluaren pedagogia** 37
6.1. Baliabide psikopedagogikoak 39
6.1.1. Entzute aktiboa 39
6.1.2. Erantzun enpatikoa 41
6.1.3. Elkarlana 42
6.1.4. Familia eta eskola 45
**7. Baliabide didaktikoak** 46
7.1. Irakurgaiak 47
7.1.1. Ez da erraza kattagorri 47
7.1.2. Betiko 48
7.1.3. Etxe bitan bizi naiz, eta zer? 48
7.2.Filmak 49
7.2.1. Therabeitiara zubia 50
7.2.2. Neskalagun hilotza 51
7.2.3. Eguberri aurreko amets gaiztoa 51
7.2.4. Laugarren solairua 52
7.2.5. Nire neska 53
7.2.6 . E.T. 53
7.2.7. Avatar 54
7.2.8. Errege lehoia 55
7.2.9. Proposamen didaktikoak 55
7.3.Arte plastikoak 56
7.3.1. Mandalak 56
7.3.2. Zuhaitz genialogikoa 57
**Ondorioak**
**Erreferentzia bibliografikoak**
**Eranskinak**
**Eranskinak I**
**Eranskinak II**
**Eranskinak III**
**Eranskinak IV**

## SARRERA

Gradu amaierako lan hau, Doluaren inguruko hastepen teorikoak azaltzeaz gain, Doluaren Pedagogian zentratzen da. Izan ere, eskoletan oso gutxi lantzen den gai garrantzitsua iruditzen zait. Lehen Hezkuntzako kurrikulumean zehar lerroen bidez lantzeko arloa bada ere, behar besteko garrantzia ez emateko arrazoiak anitzak izan daitezke. Egungo gizartean heriotzaren esanahia zeharo aldatu da, tabu izatera iritsi den gai batean bihurtuz. Sarritan, irakasle nahiz helduak orokorrean, ez daude gai honetan jantziak eta haurrei ezjakintasun edota deserosotasun hori transmititu egiten zaie. Beraz, haurrak ez galdetzeko ohitura hartzen du, dituen kezka eta zalantza guztiak bere irudimenarekin justifikatuz. Aitzitik, egia zein den jakitea baino kaltegarri eta ikaragarriagoa da haurrak sortzen dituen hipotesiak, beraz, heriotzaren pedagogiak goraipatzen duen helburuen artean, gaia lasaitasunez jorratu eta haurrek dituzten kezka eta beldurrak jasotzea da.

Ikasturte honetan bertan, gure eskolako ikasle baten heriotza bizi izanak eta honen aurrean zein jarrera edo esku hartze gauzatu dezakegun sortu dizkidan buruhausteak eraman naute, beste arrazoi askoren artean doluaren gaia hautatzera. Arraoi horien artean, lan osoan zehar azalduko den gaiarekiko irakasleok daukagun formakuntza eza da aipagarrienetako bat.

Gaiari hasiera emateko heriotzaren kontzeptuaren azalpena egiten da eta honen harira, heriotzak historian zehar izan duen trataeraren hurbilketa bat ere. Izan ere, doluaren eragile nagusietako bat heriotza izaten dela kontutan harturik, beharrezkoa da heriotzaren kontzeptua azaldu eta ulertzea. Heriotza abiapuntutzat hartuta, honen esanahia ulertzeko ezinbesteko lau kontzepturen azalpena egiten da; heriotza unibertsala eta itzulezina da, gainera iristen den unean, bizi funtzioak agortu egiten dira eta azkenik, heriotza guztiek, bere zergatia dute. Honekin batera, heriotza eta hezkuntza munduarekin lotura duten autore ezberdinen obra eta lanei buruzko “Heriotzaren pedagogía” arloa jorratzen da, gaur egun tabu bihurtu den heriotzaren gaia lantzeko proposamen eta esperientzia desberdinak partekatuz.

Galera esanguratsu bat gertatzen denean, pertsonak dolu prozesuan pausu desberdinak ematen direla medio, hauen azalpen zehatza egiten da, igaro beharreko

faseak zehaztearekin batera. Hauek kontutan hartzea eta antzematea oso garrantzitsua da, azken finean erabakiorrak izango bait dira era bateko ala besteko dolu mota pairatzeko orduan. Izan ere, galera gertatzen denean ez bada era egokian esku-hartzen, autore gehienek defendatzen duten *dolu konplexu* batean bihur daiteke, familian, eskolan edota lagunartean, baina bereziki norbanako egoera psikosozial eta emozionalean, ondorio negatiboak sorraraziz.

Jarraian, dolua haurretan lantzen da, gertutasunaren araberako galerek printzipio berdinak jarraitzen dabituzte ere, desberdintasunak ere topa daitezke haurrak galdutako persona horrekin duen harreman afektibo edo atxikimenduaren arabera. Hemen ere hainbat faktore eragilek parte hartzen dute, aurretik beste dolu prozesuren bat jasan ote duen ala familia nahiz gertuko testuinguruan haurrak duen babes edota laguntza, esaterako. Egoera honetan haurraren garapen emozionala baldintzatua gerta daiteke, maiz bere autoestiman gorabeherak egoten ahal direlako.

Lanaren bigarren zatian Doluaren Pedagogiaren inguruko zenbait baliabide topa ditzakegu, baita hauek aurrera eramateko zenbait argibide ere. Era honetako pedagogia sustatzeko zenbait proposamen didaktiko eskeintzen dira, ikasgelan landu ahal izateko irakurgaien, filmen eta arte plastikoen sailkapenarekin batera. Helburua ez da filmak ikusi eta ipuinak irakurtzea, baizik eta hau egin ondoren, hausnarketa eta elkartruke bate gotea ezinbesteko jarduera izango dira.

Lanari amaiera emateko, honen gauzatzean zehar topatutako zenbait ondorio eta hausnarketak aipatzen dira, baita oraindik egiteke edo zabalik gelditu diren hainbat elementu ere. Arlo personal eta profesionalean lagungarria izan arren, oraindik ere eta eskola gehienetan orokorrean lan handia bait dago egiteke.

## 1. ZER DA HERIOTZA?

Heriotza, biziaren erabateko eta betirako etena da. Giza bizitzaren bukaera hau berezkoa nahiz eragindakoa izan daitekeela adierazten du Elhuyar Hiztegi entziklopedikoak.

Definio ezberdin bezain anitzak topa ditzakegu kontzeptu honen inguruan, izan ere, autore bakoitzaren pertzepzioa guztiz kontrakoa izan daiteke norbere ezagupen arloa kontutan hartu ezkero. Hau da, ezingo genituzke filosofia, erlijio edo medikuntza munduan sortu diren ulertzeko era edo esanahiak maila berean aztertu, izan ere korronte bakoitzaren oinarriaren jatorria oso anitza izan daiteke. 1984. Urtean "Variaciones sobre la muerte, en adiós a la filosofía y otros textos" liburuan E. Cioranek aipatu zuen moduan, lehenago osasun zientziak heriotza, hiltzera eramaten gaituzten funtzio multzo bezala definitzen zuen bitartean, gaur egun, definizioari zentzua aldatu diote, bizitza, heriotzari aurre egiten dion funtzio multzo bezala definitzen dutelarik.

Antzinako garaietatik heriotza izan da hausnarketa filosofiko sakonen, erlijiosoen edota egungo ikerlari zientifikoen gai esanguratsuenetako bat. Industria ondoko gure gizartean aldiz, heriotzaren kontzeptua ulertzeko zaitasunak nabarmenak dira, izan ere, kontzeptuarekiko adierazten diren jarrerek, garapen desegokia baliatzen ari dira. Galerari aurre egitearen nahiz, onartzearen jarrera aurrerakoietan atzera eginez, heriotzaren beldurrak sortzen duen ezinegona sustatzen da, heriotza bera onartzeko zailtasun esanguratsuak sustatzen dira.

Sistema sozioekonomikoek pertsonen sentitzeko nahiz pentsatzeko erak baldintzatzen dituzte. Susperraldi ekonomiko, eta soziopolitikoen garaietan kaos eta egoera nahasiak ahalbidetu dituzte; garai batean baliagarriak eta esanguratsuak ziren ideia edota printzipioak zeuden bitartean, historiaren kolpe batez aldatu egiten dira. Egoeren izaera aldakor honek objektuek, sentimenduek, sinismenek edota pentsamenduek denboran duten iraupena dakarkigu burura. Guzti hauen gailurrean heriotza aurkitzen da eta gizakiaren historian zehar biziraun duen babesa bilatzearen korrontearekin egiten du topo.

Beraz, egungo heriotzaren inguruko ezkutatze hau, eredu sozioekonomikoak baldintzatutako eredu kulturalean oinarrituta dagoen arren, mendebaldean historian zehar horrela ez dela izan defendatu zuen Joan Amadesek 2001 urtean, heriotza ulertzeko era berri hau EEUUetan sortu omen zen eta XX. Mendean zehar Europan barrena hedatuz joan zen. Artean ere eragin zuzena izan zuen sinismen honek, XVIII-XIX. Mendeetan zehar iturburutzat eguneroko bizitza nahiz beste edozein gai zuten obretatik heriotza baztertu egin zuten. E. Morinek (2007).”El hombre y la muerte” liburuan aipatu bezala, XIX. Mendeko bigarren erdialdetik aitzina hasi zen krisialdi garaikedearekin lotura zuzena zuen “heriotzaren krisialdia”. Phillippe Ariesek 200. Urtean erran zuenaren arabera, XIX.mendetik aurrera heriotzaren adierazpen plastikoak oso eskasak ziren eta XX.mendean zehar guztiz desagertu omen ziren. Bere hitzetan, geroztik, heriotzaren gainean sortutako isiltasuna zabaldu den heinean, indar basati eta zentzugabean bihurtu da heriotza.

Aurreraxeago, Heriotzaren Esanahiaren atalean azalduko dudan bezala, ezinbestekoa da haur eta nerabeek heriotzaren gaineko oinarrizko lau kontzeptu ulertzea, honek isladatzen duen esanahia eraikitzeko, minari aurre egin ahal izateko, baita dolua ahalik eta modu osasuntsu eta argienean garatzeko ere.

### 1.1. Heriotzaren adierazpenak historian zehar

Denboren hasieratik, aro, herrialde eta kultura guztietan, gizakiak heriotza, espiritualtasun eta hil osteko munduarekiko interesa adierazi du. Neanderthal gizonen garaietan, ehorzketen hilobietan, gorpua uzkurtuta agertzen zen, opariz inguratuta eta inguruko lurra, errekarriz estalita.

**Antzinako Egiptoko** ehorzketa errituen artean, lurperaketak berebiziko garrantzia zuen, heriotza ondorengo bizitza hilezkorra lortzeko beharrezkotzat hartzen baitzituzten. Erritu eta protokolo hauen artean, momifikazioa, sorginkeria magikoak eta ondorengo bizitzan baliagarriak izango zitzaizkien objektuak hilobiratzea zeuden.

Urteetan zehar ohitura hauek aldatuz joan ziren, zaharrenak baztertuz eta berriei lekua emanez, hala ere, enbaltsamazio prozesuko elementurik garrantzitsuenek iraun zuten. Denboraren poderioz detaile zehatz batzuetan aldaketak izan ziren arren,

gorpuaren prestaketa, erabilitako erritu magikoak eta hilobian sartzen ziren elementuak ehorzketa egipziar egokia bermatzeko ezinbestekoak ziren.

**Neolitiko eta Brontze-Aroan**, hilobi-monumentuak eskeintzen zizkioten hildako pertsonari: trikuharriak, dolmenak, harrespilak... azaltzen hasi ziren. Batzuetan, gorputzaren errautsak lurrontzi batean sartzen zituzten eta harrespiletan lurperatu. Brontze aroan azaldutako zirkulu formako egitura batzuetaz baliatzen ziren hildakoaren objektu pertsonalak ere lurperatzeko. Ez ziren benetako ehorzketak, izan ere, ehorzketek balio sinbolikoa zuten. Esan daiteke, neurri batean, errausketara bideratuta zeudela.

Trikuharrien kasuan, gorpuak lurperatzeko erabiltzen zituzten, bertan, garai hartako janari edota lanabesen aztarnak topatzea ohikoa izaten da.

**Erromatar garaietan**, taula itxurako hilarriak agertu ziren. Taula hauetan, gizarte mailan berezitasunak agerian jartzen ziren; izan ere, hildakoari buruzko epigrafeak azaltzen hasi baitziren, sinbolo ezberdinen bitartez, hildakoaren bizitzari buruzko datuak agerian utziz, lanbidea, zaletasunak edota izena, besteak beste. VI. mendearen inguruan, kristautasunaren eraginez, gurutzeak azaltzen hasi ziren hilarri hauetan.

Antzinako Greziatik Erdi Arora bitartean, heriotza, prozesu natural, logiko eta jasangarri bezala ulertzen zen, 1991n F.J. Galak, M. Lupianik eta bere ikerketa taldekideek defendattu zutenaren arabera.

**Erdi Aroan kristau, judutar zein arabiar kulturetan**, heriotza pekatuaren ordaina zen, zigorra. Lehenbizikoz hil-oihala agertzen da. Ehorzketak elizetan egiten ziren, hilarriak erabiliz.

**Berpizkundean**, heriotza bizitzaren ziklo gisa ikusten hasiko da. Orduko, margolariek eta musikariek bereziki, heriotza beste era positiboago batean biziko dute, heriotza bizitzaren amaieran ematen den pausu bezala, “ars moviendi” zeritzon (heriotzaren arte) gisa.

**Gerora**, biztanleriaren gorakadak zirela medio, ehorzketak, eliza barruetatik ondoko lurraldeetan kokatutako hilerrietara pasako dira. Ehorzketa tokiak seinalatzeko, hilarriak erabiltzen hasiko dira berriz.

**XVIII-XIX. mendean**, hiriguneak sortu zirenean, garbitasun neurriak betetzeko asmoz, ehorzketak elizen kanpoaldetik hiriguneetako aldamenera bideratu zituzten. Hilerriak hiriko kanpoaldean eraikitzen ziren. Ehorzketa tokia, seinalatzen jarraituko da eta leku hau atondu egingo da, metalezko gurutze, panteoi edota kapera txikien bitartez.

**XX menderarte**, senitarteko baten heriotza gertatzen zenean, etxean izaten zen, era honetan, haurrek bizitzaren prozesuaren parte bezala bizitzen zuten egoera. M Caracuelek 1983an “Actitudes ante la muerte y los enfermos terminales en los estudiantes de Enfermería de la Escuela Universitaria de Córdoba” n aipatu bezala. Aitzitik, azkenengo hamarkada hauetan, barneko hamaika beldur eta ezinegon egotzi zaizkio heriotza, baita hiltzeko momentuari. Etxeetatik kanporatuz, gure eguneroko bizitzatik baztertuz eta herrietatik aldentzen joan dira heriotza eta lurperaketak. Ohiko hizkeran ere gero eta gutxiago erabiltzen da heriotzaren inguruko terninologia. María Cátedra antropologoak 1999 El País egunkarian aipatu bezala, *pixkanaka heriotza gure bizitzatik baztertuz eta izkutatuz goaz, lehengo etxeko gaubeilen lekuan sarritan herriguneetatik kanpo tanatorioak eraikiz. Ildo beretik, ezin dugu ahaztu heriotza eta bizitza elkarren beharra duten prozesuaren ezinbesteko pausuak direla.*

1913an M. De Unamunok “Del sentimiento trágico de la vida” liburuan idatzi zuen moduan, egun, bizitza goraipatu egiten da, heriotzaren esanahi zentzugabe eta ganorabakoenena izkutatuz, bata bertzea gabe ezin dela ulertu, defendatuz. Ordutik ehun urte igaro diren arren, baieztapen honek indarrean jarraitzen du oraindik ere.

Hildakoaren ehorzketa lekua markatzeko ere, hilarriak erabiltzen dira. Baina errausketa, gero eta indar gehiago hartzen hasi da gure gizartean. Orduan, hildakoak bere errautsak sakabanatu nahi izan duen mendi edota zelaian, zuhaitz bat landatu edota (ahal izatekotan) monolito bat ezartzen da.

## 2. HERIOTZAREN PEDAGOGIA: AUTOREAK ETA ESPERIENTZIAK

Mar Cortina Selvak 2010ean Madrilen argitaratutako "*El cine como recurso didáctico de educación para la muerte: implicaciones formativas para el profesorado*" doktoretza tesian aipaturiko hezkuntza arloarekin lotutako autore eta esperientzien bildumatik ateratako zerrenda da ondoren azalduko ditudanak.

### 2.1. Concepció Poch, Mª Antonia Plaxats y Joan Carles Mélich

Concepció Poch anderea Filosofian lizentziatua da eta Psikopedagogian masterra egin zuen, Bartzelonako unibertsitateko Hezkuntzaren zientzien Institutuan dagoen Hezkuntza Balioen taldeko partaide eta irakaslea da. Hezkuntza eta heriotzaren gaiari buruzko bi liburu idatzi ditu. Lehenengoa 1996an idatzi zuen "De la vida y de la muerte" eta bigarrena, 2003an Olga Herrerorekin batera egin zuen, "La muerte y el duelo en el contexto educativo" izenarekin.

Mª Antonia Plaxats 1979. Urtean Psikopedagogia ikasketak amaitu zituen eta Espainiar estatuko Psikologia Humanistaren aintzindarietako bat da. EMDR izeneko metodo berritzailearen bultzatzaileetako bat izan zen estatuan. Metodo honek trauma ondorengo estresak sortzen dituen patologia mota zabal baten tratamendua azkartzen du. Zenbait artikulu idazteaz gain, Cristina Miliánekin batera 2005 urtean "Miradas hacia la vida. Ganar al perder" liburua argitaratu zuen.

Joan Carles Mélich Hezkuntzaren Zientzien doktorea da. Egun, Bartzelonako Unibertsitatean Hezkuntzaren Filosofia eta Antropologian irakaslea da, baita Madrilgo CSIC Filosofia Institutuko "La filosofía después del Holocausto" ikerlari taldeko partaidea ere. Honek Heriotza eta hezkuntzarekin lotura duten hiru liburu argitaratu ditu: lehenago aipaturiko "Situaciones límite y educación", 1987ko "Pedagogía de la finitud" eta "Filosofía de la finitud" izenekoa azkenik, 2002. urtean azken honen atzeko azalean honako hau idatzi zuen: "*se presta una especial atención a las transmisiones educativas como un aspecto fundamental de una filosofía de la finitud. El educador debe dar testimonio de la provisionalidad, de la vulnerabilidad, y de la contingencia propia de la condición humana. Sin este testimonio, la educación llega a ser fácilmente*

*un instrumento al servicio del totalitarismo. Por este motivo, una filosofía de la finitud es sobre todo una crítica radical del poder*".

1988. urtean, Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleekin hilerri batera bixita egitearen aitzakiarekin ekin zioten "Heriotza eta bizitzaren Pedagogia" deitu zioten lanari. 1987.urtean J.C. Mélichek idatzitako "Situaciones límites y educación" liburuaren atal batean zalduta dagoen esperientzia da hau. 1993 ko uztailean Lehen Hezkuntzako gazteekin gauzatutako esperientzia pilotoa aurrera eraman zuten A. Plaxats psikoterapeuta eta gizarte langileak, V. Teixidor Lehen Hezkuntzako irakaslearekin batera. Bertan, Mélichekin batera lanean ari zen Concepció Poch ezagutzeko aukera izan zuten, garai hartan heriotzaren pedagogían ikertzen eta irakasten ari zena.

1994. urtean, Mélich, Poch eta Plaxatsek lan taldea osatu zuten, elkarrekin, "Educar per la vida" eta "Educar per la mort" izeneko ikastaroa sortu zuten. Honetaz gain, publikazio ezberdinak, konferentziak, mintegiak baita eskoletan laguntza edo aholkatze puntualak egin izan dituzte ikasle, guraso edo irakasle baten heriotza gertatu den kasu batzuetan.

### 2.2. Vicenc Arnáiz

Mahóngo EAP (Equip d'Atenció Primerenca de Menoria) taldean egiten du lan. Bestalde, "Aula de Infantil" aldizkariaren zuzendaritza taldeko partaidea izateaz gain, "Aula de Innovación Educativa" aldizkariko partaidea da, biak ala biak Bartzelonako GRAÓ argitaletxekoak publikatzen ditu. Eskolen testuingua hobetzen eta hezkuntza kultura tailer bihurtzen laguntzen die, familiekin elkarlanean oinarritzen diren proposamen praktikoak eskeintzen ditu, heriotza bezalako egungo tabuekin bukatzeko aukera eskeintzen dien bitartean.

2003. urtean "Pensar, hablar de la muerte y comprometerse con la vida" monografikoa idatzi zuen.

## 2.3. Claudia Grau Rubio

Valentziako Unibertsitatean Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskolako Didaktika eta Antolaketa Saileko irakaslea da. Heziketa Bereziaren arloan minbizia duten haurren eskola integrazioaz arduratu da. Hauen bizitzaren normalizazioa bermatzea da bere lanaren helburua. Ondorio neurologikoak pairatzen dituzten haur gaixoen berreskuratzean laguntzen dien proiektu batean lanean ari da Valentziako "La Fé" Ospitaleko Onkologia Pediatrikoko profesional talde batean.

Ikerketa proiektu ezberdinetan hartu du parte: "Intervención psicoeducativa en niños diagnosticados de cáncer"; "Programa de detección precoz de secuelas en niños con tumores de SNC y leucemias"; "Neurocognitive rehabilitation in children with central nervous system tumors"; eta "Evaluación neuropsicológica en niños con tumores intracraneales y leucemias: propuestas de intervención educativa". Ondorengo liburuen idazlea da ere: "Integración escolar del niño con neoplasias" (1993); "Las necesidades educativas especiales de los niños con tumores intracraneales (2000) eta "Atención educativa a los niños con enfermedades crónicas o de larga duración" (2004).

Guzti honetaz gain, liburu ezberdinetan hartu du parte, gai honi buruzko zenbait artikulu, eskola inklusioarekin nahiz heziketa bereziarekin lotura duten hainbat kongresuen partaide izan da.

## 2.4. Agustin De La Herrán, Isabel González, Mª José Navarro, Mª Vanessa Freire eta Soraya Bravo

Talde hau 1997. urtetik aurrera haurrek heriotza nola ulertzen duten eta berau hobetzeko asmoz, ikuspuntu normalizatzaile batetik heriotzarako hezkuntza sendotzeaz arduratzen da. 1998an Haur Hezkuntzako Munduko VI. Kongresuan "Educación para la Muerte como Tema Transversal de Transversales" izeneko ponentzia aurkeztu zuten.

## 2.5. "Heriotza hezkuntzan" mintegia.

2002 urtean Donostian Uztailaren 2, 3 eta 4an HIK HASI aldizkariak antolatutako mintegiak "Viajando por las estelas. Signos de la espiritualidad en el arco Atlántico" Proiektuan oinarritutako maleta bidaiaren proposamena defendatu zuten. Iniziatiba hau Donostia Kulturak lagundu zuen Donostiako San Telmo Museoa, Portugalgo Lamego Museoa eta Baionan dagoen Euskal Museroaren laguntzarekin. Maleta Didaktikoaren esperientzia eskola desberdinetan gauzatu zen, hauen artean, Santo Tomás Lizeoan eta Eskoriatzako Luis Ezeian. Apozagako hilerrian gauzatu zuten esperientzia, maletak eskeintzen dituen baliabideak erabiliz. Landa lana informazio bilaketarekin osatu zuten.

## 2.6. Xesca Coll

2000/2001 ikasturtean, Mallorcan Pollensako Literatur Katalaneko irakasleak heriotzaren gaia lau literatur genero ezberdinetatik lantzeko iniziatiba sortu zuen: olerkigintza, haurren ipuinak, narrativa eta zinemagintzarekin, alegia. Miquel Martí i Polen "Estimada Marta" olerki bilduna aukeratu zuen, honetan, autorea bere gaixotasun kroniko eta degeneratiboaz mintzatzen da, hau da, iragarritako heriotza bati buruz. Aukeratutako ipuina Mar Cortinak idatzitako "On és el iaio?" izan zen, bertan, aitona zergatik ez dagoen jakin nahi duen haur batek egiten duen ibilbidea kontatzen du, bere inguruan dauden helduek *heriotza* hitza ez aipatzearren gauza desberdinak asmatzen dituzte. Narratiba eta ikusentzunekoa baliabideak, institutuan bertan Ikusentzunezko Baliabideak ikasgaia ematen zuen irakasle batek sortu zituen.

## 2.7. "Pensar, hablar de la muerte y comprometerse con la vida" 2003 "Aula de innovación educativa" aldizkariaren monografikoa

Autore ezberdinek egin zituzten bere ekarpenak monografiko honetan:

- *Arnàiz, V.* "¿Podemos hablar de la muerte en la escuela y el instituto?"
- "Pensar,hablar de la muerte y comprometerse con la vida", "Diez propuestas para una pedagogía de la muerte"
- *Mèlich, J.C.* "Pedagogía de la finitud"
- *Feijoo, P. y Pardo, A.B.* "La escuela: una amiga en el duelo"

- *Nolla, A. y Giralt, J.* “Podemos hablar de la pérdida y la muerte en primaria”
- *Cortina, M.* “Educar teniendo en cuenta la muerte”
- *Poch, C. i Arnàiz, V.* “Pedagogia de la muerte, pedagogia de la vida”.

**2.8. Natália Buesule, Emma Gil, Juan Manuel Moreno I Joan Vidal**

Bartzelonako Irakaslegoaren Formakuntza Eskolan hirugarren ikasturtean zeuden ikasleak ziren. Coneixement del Medi social i cultural ikasgaian “La mort. Proposta d’unitat de programació” lanaren autoreak. Unitate honen helburua, heriotzaren inguruko lehen informazioa ematea da, gaia jorratzeko, nahiz zalantza edo kezkak normaltasunean adierazteko baliabideak eskeintzea da. Hiru jardueren deskribapen zehatza, justifikazio zientifikoa eta pertsonala erabiltzen dituzte gaia justifikatzeko.

.

**2.9. Pilar Feijoo Portero**

Pedagian lizentziaduna SORKARI, S.A.-ko (Atención Integral al Desarrollo de la Persona) formakuntza arduraduna da. Artikulu desberdinak idatzi ditu; “Muerte y Educación” Tarbiya aldizkarian, 2003.urteko 33.zenbakian, bertan, heriotza eta hezkuntzaren hausnarketa egiteaz gain, jarduera eta baliabideak eskeintzen ditu. 2003.urtean, “La escuela, una amiga en el duelo” artikulua argitaratu zuen AULA de Innovación Educativa aldizkariaren 122. zenbakian. Bere Tesiaren Proiektuaren izenburua “Razonamientos frente a los niños y la muerte” izan zen.

**2.10. Madrilgo Irakaslegoaren Formakuntzarako Fakultatearen Didaktika eta Hezkuntzaren Teoriaren Saila**

Agustin De La Herrán irakasleak 2005/2006 ikasturtetik aurrera eskeintzen duen “Heriotza eta bere Didaktika” ikasgaia da hau. Ikasleen asistentzia, motibazioa, nahiz inplikazioak ikasgaiak sustatzen duen arrakasta handiaren erakusle dira.

**2.11. “Cuadernos de Pedagogía” aldizkarian “Muerte y duelo” monografikoa (2009 ko martxoa)**

Gaiari buruz autore ezberdinen ekarpenen koordinaketari esker, Concepció Poch Avellanek argitaratutako monografikoa da hau:

- *Poch, C.:* "¿Por qué es necesaria una Pedagogía de la muerte?"
- *Herrero, O. :* "El duelo en el niño, cuándo es normal y cuando se complica"
- *Borrajo, G.:* "Escuelas que alivian el dolor"
- *Almonacid, M.; Santias, M. y Vallvé, A*.: "Una experiencia de duelo en el motor de la escuela"
- *Dolz, A*.: "El amor y la muerte: una mirada interdisciplinar"
- *Cortina, M. ; De la Herrán, A. y Nolla, A*.: "Propuestas para anticiparse al duelo"

**2.12. Biel Garriga**

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko irakasle honek, 2009. urtean argitaratu zuen "Rock and Dol" izeneko liburua. Bertan, orduan seigarren mailan zeuden bere ikasleekin egindako esperientzia kontatzen du, horietako baten aitaren heriotzaren ondorioz doluaren prozesuan lagundu zioten.

**2.13. Alejandro Dolz**

Cuencako Irakasleen eskolan "Conceptos" iniziatibaren sortzaileetako bat da. Bertan, urtean behin egiten diren protopaketa hauetan, interesa duten profesionalei gai ezberdinak proposatzen zaizkie, hauek, ikuspuntu, zein, disziplina arlo ezberdinen erabileraz lagunduta lantzen dituzte. Jardunaldi hauek hezkuntzarekin lotura duten profesionalei zuzenduta egon arren, interesa duen guztiei zabalik dago, hiriaren hezkuntza eta kultura eskaintza hobetzeko asmoz. 2008/2009 ikasturtean proposaturiko gaia, "Paseo por el amor y la muerte" izan zen, bertan parte hartu zuten hezkuntza munduarekin lotura gehien izan zutenen artean Mar Cortinaren "Educación para la muerte" eta "¿Qué pintan los profesores? (VIII) Amor y muerte" izeneko Irakasleen margolan eta marrazkien erakusketa kolektiboa.

### 2.14. José Luis Villena, Granadako Unibertsitatea

"Educación para la muerte: Implicaciones Sanitarias y Educativas"izeneko jardunaldian parte hartu zuen, 2006.eko abenduaren 14 tik 16ra bitartean. El Curso-Seminario "*Educación para la Muerte: implicaciones educativas y sanitarias"* izeneko mintegi-ikastaroaren helburu nagusietako bat, heriotzaren fenomenoari trataera hezgarriago bat ematea da. Horretarako hezkuntza eta ezagutza erabiltzen dituzte, heriotzaren inguruan eskoletaraino iritsi diren mito eta sinismenekin bukatzeko asmoz.

### 2.15. Jordi Beltrán Del Rey

1995. urtean "Disposem de la vida" liburua idatzi zuen Bartzelonan Eumo argitaletxearekin batera argitaratuta. www.senderi.org Hezkuntza balioen ikasgaiarekin lotura duen orrialdean topa daiteke bere liburua. Material didaktiko honen barruko atal batean, heriotza eta eutanasiaren gaineko hausnarketa jasotzen du, nerabeei zuzendutako jarduera eta baliabide didaktikoen bilduma batekin batera.

### 2.16. Centre de Recursos Pedagógics Del Vallés Occidental IV Sant Cugat

Catalunian aurkitzen den zentruan hainbat baliabide desberdin eskeintzen dituzte: http://www.xtec.es/serveis/crp/a8930040/maletadidacticadolcontingut1.htm eta http://profesordeeso.blogspot.com/search/label/muerte web orriak eta
"Maleta didàctica: La mort i el dol" izeneko maleta dira aipagarrienetakoak. Maleta honen barruan ondoko materiala eskeintzen dute:

- Haur eta nerabeei zuzendutako ipuin eta irakurgaiak.
- Haur eta nerabeei heriotza eta dolua azaltzeko informazio eta idazkien bilduma.
- Artikuluak
- Bizitza eta Heriotzarako zinema eta hezkunzta. Filmen eskeintza.

### 2.17. Kepa Camiña Abajas

Euskadiko Hezkuntza Sailaren Berritzegunen, Leioako Irakasle Eskolan Bizikidetza aholkularia da Kepa. Euskal Erkidegoko heziketa maila ez unibertsitarioetako eskoletan dolu egoerak artatzeaz arduratzen da. Normalean, irakasle edo ikasleren baten

heriotza gertatzen denean egiten du eskuhartzea, nahiz eta zenbait kasuetan, ikasleen senitarteko baten heriotza edota etendako doluak egon diren kasuetan laguntzea beharrezkoa izaten da. Sarritan sortzen diren premiak, telefono, e-mail, klaustro edota ikasgeletaraino hel daitezke. Inguruko irakasle edo profesionalei eta Berritzegune bertako aholkulariei zuzendutako doluarekin lotutako formakuntza; ikastaro, nahiz, mintegiak eskeintzen ditu.
Irakasleen Formakuntza Planean “Garatu”k 24 orduko hiru ikastaro antolatu eta eskeintzen ditu, gaiaren inguruan adituak diren kanpoko profesionalen partehartzearekin, Pilar Feijoo, Patxi Izagirre eta Ana Mª Gómez Espeso besteak beste.

## 3. HERIOTZAREN ESANAHIA: Heriotzaren gainean jakin beharreko lau kontzeptu

Nerabe nahiz helduek, heriotzaren esanahiaren gaineko eraikuntza konplexua garatua duten arren, gertutasun handiko galera bat suertatzen denean, hauentzat ere oso prozesu zaila da aurre egin eta onartzea. Are zailagoa gertatzen zaie 8-9 urterarteko haurrei galera ulertu eta gainditzea, izan ere, oraindik ez dute ulertzen heriotzak duen egiazko esanahia. Ondorioz, bere beldurrak, fantasiak nahiz berezkoa duen mundu emozionala elikatuz, haurra larritu eta doluaren prozesua konplikatu dezake, inguruan lagundu eta argitzen saiatuko den helduaren presentziarik ez badu.

Ondoko lerroetan haurrak heriotzari buruz ezagutu eta ulertuko duenari buruzko ibilbide honetan, ezinbesteko garrantzia du solik haurraren adinera ez mugatzea beharrezko azalpenak emateko unean, Mario Losantos del Campo fundazioak argitaratutako “Explícame qué ha pasado” gidaliburuan adierazi bezala. Ezinbestekoa da haurrari galdetzea, azalpenak beraiek egin ditzatela, heriotzaren inguruan dakitena eta ulertzen dutena, horrela, alderdi emozionalean oraindik ikasi edo jakin behar dutena ezagutuko dugu.

Ildo berean ezin dugu ahaztu heriotzaren esanahia ez dela afera arrazional hutsa, izan ere, emozioek berebiziko papera betetzen du. Nahiz eta helduak heriotzaren egiazko

azalpena eskeini haurrari, hauek bere teoria edo irudimenezko eraikuntzei tinko eusten jarrai dezakete.

Heriotza ulertzea prozesu emozional luzea da, jakitea ez baita dakiguna onartzea. Horregatik, heriotzaren inguruan dituzten fantasiak eta errealitatea aldi berean pairatzea ohikoa izaten da. Heriotza, nahiz bere esanahia guztiz ulertzeko, haur guztiek kontzeptu konplexu honen oinarrizko premisak ulertzea ezinbestekoa da:

### 3.1. Heriotza unibertsala da: izaki bizidun oro hil egiten da

Gogorra izan arren, jakin behar dugu heriotza unibertsala dela. Hala ere, ohikoa izaten da helduek, nahiz eta izate hau alderdi kognitiboan argi izan, emozionalki baliabide gutxi izatea errealitatea den bezala azaldu edo transmititzeko.

Haur batek heriotzari buruz galdetzen duenean, gezurrak ez esatea, egia ez sahiestea edo apaintzea oso garrantzitsua da, izan ere, modu honetan, haurrari berezko baliabideak garatzen, errealitateari hurbiltzen, nahiz, hazkuntza prozesua eraikitzen lagunduko diogu. Ildo berean, haur batek bere ama hilko ote den galdetzen duenean, aho betean *bai* erantzutea, ahobeteko *ez* ematea bezain kaltegarria da:

- Aho betean ama inoiz ez dela hilko erraten badiogu, hasiera batean haurra (baita heldua ere) lasaitzen ari garela dirudien arren, gezur hori jasanezina da. Haurrak gezurretan ari garela hautematen du, baita gure ezinegona eta beldurra ere, eta ondorioz, bestelako informazio iturriak bilatzeari ekiten dio, gure azalpenei zentzua emateko asmoz. Aitzitik, eskuratutako informazioa, dutena baino okerragoa edo beldurgarriagoa izan daiteke, bere fantasiazko munduak oraindik eraikuntza prozesuan dagoen alderdi kognitiboan zuzenean eraginez, edota oraindik konpondu gabe dituen gatazka emozionalak baldintzatuz.

- Aldiz, ahobetez ama hilko dela esaten badiogu haurrari, larritasun handiko egoera batera bultza dezakegu, oraindik horrelako egia ulertzeko baliabideak ez baditu. Heriotza, urratsez urrats barneratzen den kontzeptua da eta horretarako hainbat defentsa  beharrezkoak dira, hala ere, ezingo diugu inolaz ere gezurrekin azaldu.

Heldu bezala, egia dosi txikietan eskeini behar diogu haurrari. Ama hil egingo ote den galdetzen duenean, munduan bakarrik gelditzeak sortzen dion ezinegonak bultzatua egiten du, bere benetako galdera ondokoa izan daiteke: *Nork zainduko nau ama hitzen bada? Edo, zer gertatuko da bakarrik gelditzen banaiz?* Orduan bere beldurra jaso eta bere ama ahal duen bitartean egongo dela bere ondoan, berak zainduko duela, baina izaki biziduna den ehinean, noizbait hil egingo dela jakinarazi beharko diogu.

Emozionalki nahiz kognitiboki ulergarria zaion erantzuna eman behar diogu beti haurrari. Oraindik ikaskuntza prozesuaren garapenean egonik, ezin dizkiogu gezurrezko esperantzak sustatu, hazkuntza eta heldutasunean negatiboki eragingo bailioke.

### 3.2. Heriotza itzulezina da

Garrantzitsua da haurrak izaki bizidun bat hiltzen denean, berriro ez dela bizirik egongo jakitea. Heriotza betirako gertakaria izanik, berezko duen itzulezintasuna ulertu eta onartu behar du.

Haurraren eguneroko bizitzan, heriotza ohiko jolasa izaten da, marrazki bizidunetan pertsonaiak hiltzen badira ere, sarritan egoera itzulgarria izaten da. Lagun artean hiltzera ere jolasten dira, baina azkar batean daude bizirik.

Sarritan, heriotzaren ulermen oker hau elikatu egiten dugu helduok inkontzienteki, gertuko galeraren azalpena ematen diogunean; *aitona zerura joan da, ama beste leku batean dago orain edo txakurra oso loaldi luzean murgildu da* bezalako esapideak adierazten baditugu. Gisa honetako azalpenak eman aurretik, ezinbestekoa da bi aspektu kontutan hartzea:

- Haurren ulermenak literalki soilik ulertzen ditu helduaren azalpenak, hau da, esanahi sinbolikoak oraindik ez du zentzurik haurrarentzat.
- Haurrentzat heriotzaren itzulezintasuna ulertzea oso prozesu luzea izaten da. Horregatik, ezinbestekoa da ematen zaizkion azalpenak guztiz argiak izatea, metafora nahiz eufemismoak ekidinez.

Haur bati, aitona hil dela eta ezingo duela berriro ere ikusi esatea gogorra bada ere, ezinegon eta nahasmen handiagoa sortzen ari gara norbaiten zain egon eta agertzen ez bada. Haurra heriotzaren itzulgarritasuenan sinisten jarraitzen badu, frustrazioa denbora luzean sentituko du, bere gogoa hildako pertsonaren itzulerak betetzen baitu. Ondorioz, ohikoa izan daiteke, haur batek galera esanguratsu bat izaten duenean pena edo min handirik ez adieraztea edota negarrik ez egitea, izan ere, bere irudimenean, maite duen persona hori itzuli egingo dela uste baitu.

Dolua, hildako pertsonarekin ditugun lotura harremanak birsortzea eskatzen duen prozesu luze eta mingarria da. Heldu nahiz haurrentzat galera onartzearen prozesu honen oinarrizko pausua, hau betikoa dela eta ez duela atzera bueltarik ulertzean datza.

### 3.3. Heriotzarekin bizi funtzioak bukatzen dira

Pertsona bat hil egiten denean, bere gorputzak literalki funtzionatzeari uzten diola adierazten du baieztapen honek, hau da, ez du arnas egiten, ez da mugitzen, bere bihotzak ere ez du taupadarik ematen eta era berean, ikusteari, sentitzeari, entzuteari eta pentsatzeari uzten dio.

Helduentzat nolabait ulergarria den errealitate hau, haurrentzat oso konplexua izaten da bi arrazoi nagusi bezain zehatzen ondorioz, alde batetik oraindik muga kognitibo eta emozionalak ditu eta bestetik, helduak sarritan eskeintzen dizkiogun azalpenak.

Hildo berean, haurrari hildako pertsonaren hilobian jarritako loreak asko gustatuko zaizkiola esaten bazaio edo bere aita zeruan egonda beti ikusiko duela egiten duen guztia betirako berarekin egongo delako, haurrak heriotzaren kontzeptua ulertzeko oztopoa besterik ez da izango eta bere teoría indartzea besterik ez dugu lortuko, norbait hiltzen denean oraindik ere bizirik dagoela pentsatzen jarraituko du.

Haur batzuk, galera garrantzitsu bat izaten dutenean, beldur sakon sentsazioa izaten dute. Gehienek ez dakite zergatik denbora mugatu batean zehar egin behar duten lo

argia piztuta edota heldu batek lagunduta. Arrazoi ezberdinak egon daitezke behar honen atzean, nahiz eta hildako persona oraindik bizirik egon daitekeela nonbait eta hori gutxi balitz, egiten dutena ikusi dezakete eta haiek ez, izan daiteke pisu gehien duen arrazoietako bat.

Argi eta garbi izan behar du, hildako persona hori ez dela inoiz gehiago itzuliko, bere gorpuak sentitzeari, ikusteari eta pentsatzeari utzi dio, hori guztia bizirik dauden pertsonek bakarrik egiten dutelako. Gorputzaren funtzionamendu eta zentzumenen amaiera izan behar du heriotzaren kontzeptua ulertzeko oinarri nagusia, honek, haurrari agurra gauzatzen lagunduko diolarik.

Bizi funtzioen amaiera ulertzen duenean, sentimenduez mintzatzen hastea komeni da, inoiz ez garela hildako pertsonaz ahantziko edota beti gogoan eta bihotzean izango dugula. Alderdi emozionalean hain zuzen egongo baita beti bizirik, oroitzapenen munduan, hain gogoko zituen gauzak egiten ditugunean, abestean, gauza berriak irakastean… Pertsona bat hil egiten denean, maite izan dituztenen oroitzapenetan hasten dela bizitzen ulertaraztea oso garrantzitsua da.

### 3.4. Heriotzaren zergatia

Ezinbestea da haurrari hildakoaren heriotzaren arrazoiak azaltzea. Haurrak jakin behar du heriotzara eramaten gaituzten arrazoi fisikoak daudela, egiten ez badugu edo haurrak ez baditu ulertzeko behar beste baliabide, bere hipotesiak sortuko ditu, irudimenari nahiz fantasiazko munduari lekua emanez eta ezinegon handiagoa sortzeko arriskua dago.

Haurrari ematen zaizkion arrazoiak argiak izan behar dira, betiere haserraldia, amorrua edo ernegua bezalako sentimenduek ez dutela heriotza sortzen. Bere errugabetasuna eta heriotzaren zergatia arrazoi fisiko baten ondorio dela jakitea oso lasaigarria izaten da haurrarentzat.

Txikiari ematen diogun azalpena, bere adinera egokitua egoteaz gain, heriotza bultzatu duten arrazoi fisikoetara mugatu ezkero, detaileetan ez erreparatzea komeni da, bortizkeria egon den heriotzetan bereziki.

Heriotzaren amaiera betirako gertatzen den fenomeno bezala azaltzen zaion moduan, emandako azalpen “zientifikoa” definitzen gaituen bakarra ez dela jakinarazi behar diogu. Baita, persona gehienek heriotza ondoko bizitzari buruzko sinismen erlijioso, espiritual edo filosofikoak dituztela heriotzaren ostean gertatzen denari buruz. Haurrak berak ere ematen al du bere teoriaren berri, hildako amona maitea hodei edo izar batean dagoela, adibidez. Gizakiak orokorrean, gorputzetik kanpoko jarraipen bat bilatzen du bizitzari iraunkortasuna emateko edota espiritualki gure ingurukoen alboan betirako irauteko.

## 4. ZER DA DOLUA?

Latineraz *dolium* hitzetik datorren kontzeptua da, mina edo sufrimendua da bere esanahia. 2008. Urtean argitaraturiko Revista de especialidades médico quirúrgicas aldizkarian argitaratutako “El proceso del duelo. Un mecanismo humano para el manejo de las pérdidas emocionales” artikuluan definitu zutenaren arabera, galera kontzeptua, hitzaren zentzu zabal eta subjektiboan egiten da, hau da, estimatzen dugun norbait edo zerbait galtzeaz edota espero dugun zerbait ez iristeaz, alegia. Galdutakoarekin izandako lotura afektibo eraginkorra apurtzen denean, norberak sentitzen duen min eta sufrimendua da. Aipaturiko galera gertatzen denean egiten dugun balorazioa kontzienteki, nahiz inkontzienteki egin daiteke eta faktore arrazional, emozional eta soziokulturaletan oinarritzen da, honen iraupen eta intentsitatea galeraren dimentsio nahiz esanahiarekiko proportzionala izaten da. Balorazio horrek galera sufritzen duen pertsonaren jokabide eta erantzun emozionalean eragin zuzena dauka eta galera hori onartzeko zailtasunak azaltzen dira.

Doluaz mintzatean ohikoa izaten da, heriotzak sortutako egoeretara mugatzea, aitzitik, maite dugun persona baten heriotzaz gain, animalia, herrialde, etxe aldaketa, gurasoen

banaketa edo abstrakzio batek bere lekua betetzen duenean ere ager daitekeen sentimendua izan daiteke. Galera sentimenduak sor ditzaketen egoerak bestelakoak ere izan daitezke: maite dugun norbaiten heriotza, adiskide on bat galtzea, eskola edo lana aldatzea, gure gorputzaren zati batzuk aldatzea (istripu edo ebakuntza baten ostean, adibidez), gorputzaren funtzio bat gutxitu edo galtzea….

Egoera ezberdin hauen aurrean sentitzen dugun galera handia izaten da eta min hori ulertzeko, galera bera gertatu aurretik pasatakoak ulertu beharko genituzke. Gizakia etengabe inguruarekin harremanetan dago eta hainbat afektibitate maila ezartzen ditu. Aldi berean, harreman horiek loturak sortzen dituzte eta lotura horiek modu askotara balora ditzakegu: positiboki, negatiboki… Balorazio bakoitza faktore arrazionalen, emozionalen eta soziokulturalen multzo batean oinarritzen da. Horrela, galera bat gertatzen denean mina sentitzen dugu. Mina, aipaturiko balorazio horretan sartzen da, afektibitatean, eta baita hunkiberatasunean ere, tristura, beldurra, errudun sentipena, haserrea, inbidia… sortuz.

Horrela, persona bat nahita edo nahi gabe, galeraren aurrean egiten duen doluaren unera iritsiko da. Dolua bizitzako esperientzia konplexu bat dela esan daiteke. Galera baten aurrean, nahitaez, gertatzen diren prozesuen multzo bat osatzen da eta hori modu osasungarrian lantzeaz arduratzen ez bagara, hau da, dolu normal edo osasungarri modura garatzen ez bada, toxikoki garatuko da eta horrela, *dolu konplexua edo patologikoa* deritzona agertuko da. Sor daitezkeen prozesu arrazionalen, emozionalen eta espiritualen multzo batek esku hartzen du doluaren prozesuan. Eta noski, galdu den horren balorazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da mina edo sufrimendua, baita honek denboran izan dezakeen iraunkortasuna ere. Sociedad de Médicos de Atención Primariak gauzatutako ikerketa baten emaitzen arabera, senitarteko baten heriotza sufritu dutenen %16 ak depresioa jasaten du, galera gertatzen denetik urtebete bitartean, portzentaia hau %85 eraino iristen da 60 urtetik gorako pertsonetan.

Hortaz, nahitaezkoa da dolua konplika dezakeen prozesu oro saihestea. Horretarako, oso lagungarri izango zaigu galera esanguratsuen aurrean ohikoenak diren erantzun batzuk ezagutzea. Horretarako, bi alderdi nagusi kontutan hartzea komeni da:

- Galera hori lantzea, esker oneko oroimen sentimenduarekin konektatzeko. Dolua ez da amaitzen estualdia edo larritasuna amaitzen denean soilik. Aurrerago joan gaitezke, eta geure hondarea balitz bezala, harreman horrekin ikasi ditugun alderdi aberasgarri batzuk barnera ditzakegu. Horretarako, aurrez hildakoarekin genuen harremana onbideratu beharko dugu, bukatzeke gelditu diren gaiak aurrez aurre aztertuz, minez dagoen pertsonarengan errudun sentimenduak sor baitaitezke esparru horretan.

  Zauri emozionalak osatu eta sendatzeko ardura hartzen badugu, gure bizitza pribatuko eta gure lanbidearen eremuko beste persona batzuei prozesu osasungarriak helaraziko dizkiegu, galera baten aurrean besteari laguntzeko artea, doluan laguntzeko artea eta beraz, bizitzan laguntzeko artea garatuz.

- Hunkiberatasuna kudeatzeko izan dezakegun baliabide faltaren aurrean, gertuko sufrimendua tabu bihurtu ohi dugu gure gizartean. Tabua jarreraren fruitua da eta jarrerak alda daitezke. Jarrera, pentsamenduen, emozioen, sentimenduen, balioen, ohituren eta abarren emaitza da. Jarrera aldez aurreko joera gisa ulertu behar dugu, eragina baitauka gure pertzepzio eta jarreretan.

  Jarrerak aldatzea ez da gauza erraza, baina alda daitezke, eta nire ustez hori da informazio edo prestakuntza ekintza ororen helburu nagusia; eta norberaren dimentsio pertsonala eta lanbidearen eremua, biak, bildu behar ditu horrek.Beraz, helburu nagusia, sufrimenduaren aurrean, galeraren edo bereziki heriotzaren aurrean, jarrera aldaketa bat sustatzea izango da.

Galera esanguratsuen ondorioz, nahigabea eta mina sorrarazten dituzten prozesuen multzoa askotan gaizki lantzen da eta gure hazteko gaitasuna blokeatu egiten du horrek; dolua modu osasungarrian lantzean aldiz, gure bizitzan orain eta gerora negatiboa eta positiboa denari aurre egiteko indarra sustatuko du.

Galera esanguratsu bakoitza aldaketa sortzailea egiteko aukera izan daiteke, prozesu horretan esku hartzen duten faktore biopsikosozialen sorta zabal eta sakona geureganatzeko gai bagara.

Doluaren iraupena noiz bukatzen den jakitea oso zaila da, 2008. Urtean argitaraturiko Revista de especialidades médico quirúrgicas aldizkarian idatzitako "*El proceso del duelo. Un mecanismo humano para el manejo de las pérdidas emocionales*" artikuluan Meza Dávalos eta bere taldeak defendatzen duen moduan, ezinbestekoa da prozesuaren pausuak bizitu eta gainditzea. Galeraren sortzailearengan mina sentitu gabe pentsatzeko gai denean, doluaren amaieraren adierazgarri nagusietako bat izan daiteke.

## 4.1. Pausuak

Herrero, Cortina, De la Herrán eta Nolla-k artikulu ezberdinetan publikatutako informazioaren arabera, doluaren prozesuan bi fase nagusi desberdintzen dira. Hauek gainditu eta egoera asimilatzeak prozesua era osasungarri batean gauzatzea erreztuko du:

### *4.1.1. Lehenengo urteko aro latza*

- **Shocka (1-3hilabete):** Haurrak ezingo du gertatutakoa sinetsi, ezaugarri nagusiak: nahasmena, ezinegona, ezaugarri fisikoekin larritasuna, pentsamendu obsesiboak…
- **Nahia eta amorrazioa:** Galeraren kontzientzia azaltzen da eta haurra egoera onartzen hasiko da. Desoreka emozionala azaleratzen hasten da, eromen sentsazioa, banaketaren aurrean larritasuna, erruduntasuna, amorrazioa, bortizkeria, gorrotoa, bilakaera jarrerak, hildakoarekin ametsak…
- **Etsipena:** Doluaren etaparik gogorrena da hau. Egoera mingarri edo traumatikoa gertatu eta 8-10 hilabetera bitarte luza daiteke, momentu honetan pairatzen diren sentsazio edo sentimenduak ezberdinak izan daitezke: isolamendua, urduritasuna gertakarien gainbegiratze obsesiboa, ezinegona, etsipena, erretxina, babes falta…

*4.1.2. Sumintasunaren fase kronikoa*

- **Berrantolaketa eta orbantze unea.** Galeraren onarpen intelektual eta emozionala. Une honetan garrantzitsua da ondoko pausuak jarraitzea: Eguneroko bizitza berrantolatu, bizitzaren kontrola berreskuratu, aurreko rol batzu baztertu, esanahi bat aurkitu, zauria itxi, ahaztu eta barkatu.

- **Berrikuntza.** Bizitzarako interesa berreskuratu duenean, zoriontsua izateko eta bizitzaz gozatzeko nahia azaltzen duenean, urtebetetzeak, eguberrietako jaiak, urteurrenak… ospa ditzake.

Aipaturiko sentimenduak era ezberdinean azaldu daitezke pertsona, egoera edo galerarekiko gertutasunaren arabera.

*Ukapena*: Ohikoa izaten da galera ez onartzea, txirrina edo atea entzuten duten bakoitzean, hildakoa dela pentsa baitezake. Oraindik ez du itxaropena galdu, oraindik denbora behar du.

*Sentikortasun eza:* Hirugarren persona bati gertatu izan balitzaio bezala sentitzen du. Ez da egoera erreala, hodei batean egongo balitz bezala ulertzen du errealitatea, erantzunak automatikoki ematen ditu, erreakzionatzeko zailatsun handiak erakutsiz… Nahaste sentimendu horrek errealitatea onartzen lagunduko dio.

*Ernegua, erremina edota haserrea:* Haurra munduarekin haserre dago, medikuen, jaungoikoaren edota ingurukoen aurka jokatzen du. Ernegua bere oinazearen atala da eta normala da horrela sentitzea. Minari lekua utzi behar zaio eta baretu ahala, murriztuz joango da.

*Tristura:* Tristezia sentimendu nabarmena da eta adierazpen ezberdinak ditu, hala nola, negarra, pena, malenkonia, nostalgia… Triste egoteko baimena eman behar diogu haurrari, eta kontutan izan, negar asko edo gutxi egiteak ez duela maitasuna neurtzen.

*Beldurra eta angustia:* Galera gertatzean sortzen den egoerak egonezina sortzen du haurrarengan, urduri eta kezkatsu dago. Zoratzeko beldur da, aitzitik sentimendu deseroso hauek izatea naturala da.

*Errua*: Iragana ezin da aldatu. Oinazea haundia bada ere, ez du zentzurik norberaren burua egin gabe gelditu diren aferekin zigortzea. Kasu hauetan, maite zuen pertsona horren alde egindako guztiarekin zerrenda bat egitea komenigarria izaten da.

*Bakartasuna*: Elkarrekin bizipen asko izan ondoren, denbora behar da, maite genuen persona hori gabe gotera ohitzeko.

*Lasaigarria*: Gaixotasun luze eta gogor baten osteko sentimendua izan daiteke.

*Umore aldaketa*: Haurrak dituen sentimenduak oso aldakorrak izan daitezke. Barretik negarrera salto batean pasatzea ohikoa bada ere, egoera honetan areagotu egiten den erantzuna da.

*Aldaketa fisikoak:* Emozioen moduan, gorputza fisikoki erreakzioak izaten ditu, gorputzaren dolua deitzen zaio aldaketa multzo honi. Goragaleak, bihotz taupadetan erritmo aldaketak, eztarri edota bularraldean estutasuna, korapiloa sabelean, buruko mina, gose eza, loezina, nekea, harnasa hartzeko aire falta, ziztadak bularrean, indar eza, sorbaldako mina, dardarak, zaratarekiko hipersentsibilitatea, irensteko zailtasunak, ikusmen lausoa, ilea urdintzea, zimurrak ateratzea…

Maite dugun persona bat hil egiten denean, haurrak ez ohiko jokabideak izatea naturala da; negar egitea, hasperenka ibiltzea, hildakoaren bila edo deika hastea, hildakoarekin hitz egitea, bakarrik egoteko nahia, jendea sahiestea, asko edo gutxiegi lo egitea, kontzentrazio eskasa, distrakzioak, arreta falta, apatia edo hiperaktibitatea.

### 4.2. Motak

Dolu motak sailkatzeko garaian, aukera aunitz topa ditzakegu, autore bakoitzaren ikuspegia desberdina dela kontutan hartzen badugu. Horregatik, autore batzuen (Meza Dávalos, Torres Gómez, Gala León, García Silvia, Raja Hernández…) ideiak elkartuz, ondoko sailkapena egitea egoki deritzot:

*4.2.1. Arrunta*

Galera baten ondorioz sortzen diren jarrera, sentimendu edo erantzun naturalek osatzen duten tarteaz arduratzen den dolu mota da. Autore nahiz ikerketa askoren emaitzen arabera, heriotza baten aurrean sortzen diren giza erantzun eta jarrera multzoak ohikoak dira, nahiz eta hauek, desberdinak edota arraroak iruditu. Erantzun hauek denboran gehiegi luzatu edo arazo psikologiko batean bihurtzen direnean, dolu patologikoa izateko arriskua egon daiteke.

Egoera honetan sortzen diren sentimendu arruntenak tristura, mina eta animo egoera baxua izaten dira. Emozioen elkarjartze bat dago, pena, tristura, erruduntasuna, haserrea… eta larritasun egoera, ez duelako errealitatea galtzen.

*4.2.2. Aurretikoa*

Heriotza laster gertatuko dela aurrikusten denean, arrazoiak anitzak izan daitezke; gaixotasun luze bat, minbizia, alzheimerra, drogen ondoriozkoak… Kasu hauetan, doluaren prozesua heriotza gertatu baino lehenago hasten da. Gaixotasun larri baten iragarpena iristen denean, familian tristura handia sortzen bada ere, egoera berrirako prestatzen edo moldatzen hasten da, konziente nahiz inkonzienteki. Une horretan bertan ematen zaio hasiera aurretiko doluari. Agurra errezten du eta persona hiltzerako sentimenduak elkarbanatzea ahalbidetzen du.

*4.2.3. Atzeratutakoa*

Osasunaren eremuan, betirako heriotza gertatu dela uste denean sortzen den dolu mota da hau.

Sarritan, haurraren emozioak gehiegi kontrolatzen dituzten pertsonengan sortzen da, bere unean ezin izan baitzuten agurrik egin. Galeraren ondorioz, aipatu bezala, haurrak erreakzio ezberdinak izan ditzake. Batzuetan beste heriotza batek berpiztu dezake dolua egin beharreko unea.

*4.2.4 Inhibitua*

Doluaren adierazpena ez du pairatzen, oraindik ere ez duelako gertatutako galera onartzen, ezta aurre egten ere. Autokontrol handia azalduz, haurrak ez ditu bere sentimendu eta emozioak azaltzen. Atsekabearen joera patologikoa adierazten duen, gezurrezko euforia azaldu daiteke.

Ez dio bere buruari hildakoarengan pentsatzen uzten, bere sentimenduak somatizatuz. Ohikoa da bapatean negarrari ekitea, inolako arrazoirik gabe.

*4.2.5. Geroratutakoa*

Berandu bada ere, bere pena sentimendua kanporatzen hasten da. Haurrengan hain ohikoa ez bada ere, batzuetan gerta daiteke dolua urteetan zehar irautea, dolu mota hauen artean topa ditzakegu:

*4.2.6. Kronikoa*

Urteetan zehar luza daiteke dolu kronikoa. Askotan galera pairatu duen pertsona erlijio edo kultur osagaien artean murgilduta aurki daiteke. Ez du gizarteratze osasungarri bat lortzen ezta integratzen ere. Ez du nahitaez dolu patologiko edo konplexua izan behar.

*4.2.7. Konplexua*

Ameriketako Psikiatria Elkartearen Diagnostiko eta Estadistikoaren azken bertsioaren arabera, normala ez den doluak adiera desberdinak ezartzen zaizkiola argudiatuta, doluaren ez-ohiko erantzunei *dolu konplexu* izena eman diote.

Edonola ere, doluaren intentsifikazioa da, haurra gainezka egitera iristen da, jarrera desegokiak erakutsiz edota egoera horretan mantentzen da doluaren prozesuan aurrera egin ezinik. Sendabidean ohiko etenak izan ditzake, baita errepikapen estereotipatuak bultzatzen dituzten prozesuak ere.

Dolu patologikoa gertatzeko arriskua dagoela uste izaten da, samintasun morala denboran asko luzatzen denean; galeraren aurretik senitartekoarekin adierazitako izaeraren intentsitatearekin bat egiten ez duenean; beste pertsonak maitatu edo hauetaz arduratzeko ezintasuna adierazten du, bere eguneroko bizitzarekin jarraitzeko ezintasuna erakutsiz.

Galera onartzeko ezintasuna, galera gertatu den momentua edo norbere egoera pertsonalak bultza dezake era honetako dolua. Tristura handia izaten du denbora luzean eta honek depresioan amai dezake. Etorkizunerako ametsak desagerraraziz eta galeraren oroitzapenak dira haurraren denbora nahiz pentsamenduak betetzen dituena.

Ondorioz, ez die bere ohiko bizitzarekin jarraitzen uzten eta ez dira inoiz bizitako galerara egokitzen.

## 4.3. Faseak

R. Ramosek 2010. Urtean  "Las estrellas fugaces no conceden deseos" liburuaren itzulpenean egiten duen sailkapenaren arabera, doluaren prozesuan hiru fase nagusi bereizten dira eta hauek faktore eragile batzuen arabera desberdintzen dira.

### *4.3.1. Hasiera eta lehenengo krisia*

Fase honek ez du oso iraupen luzea izaten, hildakoaren berri izaten duen momentutik, hildakoaren agurraren momentura bitartean luzatzen da. Lehenengo momentu hauek erabat nahasgarriak dira haurrarentzat. Shock egoera eta larritasuna intentsitate desberdinean eragin dezakete, baina denek pasatzen dute. Alderdi afektiboan aldaketak gertatzen dira, hala nola, sentsibilitate handia edo bapateko umore aldaketak izan ditzake. Honetaz gain, alderdi intelektuala blokeatu daiteke.

Sinesgarritasun faltak, jarrera hotz eta apala sor ditzakeen moduan, guztiz urduri eta bere onetik aterata egotera eraman dezake. Defentsa mekanismoa dela esan daiteke,

izan ere, galera sufritu duen pertsonak informazio gaitasunen blokeo moduko bat jasaten du, betiere inkontzienteki.

*4.3.2. Tarteko fasea*

Fase honetan bi une ezberdin bereiz daitezke; lehenengoa, pena, sumintasuna, hildakoaren beharra sentitzen duen momentua eta bigarrena, etsipenarena.

Lehenengoaren momentu gehienetan hildakoaren irudiak galera jasan duenaren gogoa beteko du. Amorrazioa, protesta eta erresumina pairatzen ditu haurrak, hiladoarekin ezin duelako egon. Bere haserrea hildakoarengan, bere ordezkoarengan, eta bere galeraren ustezko arduradunarengan (nahiz eta bere irudimenaren emaitza izan) bota dezake.

Bigarren momentuan aldiz, etsipena sentitzen du, ezertarako gogorik gabe dago, bere baitan murgildurik, gurasoengan nahiz munduarengan konfidantza gal dezake. Denborak aurrera egin ahala, oroitzapen mingarrien momentuak, galera gertatu aurreko barne eta kanpo bizitzaren birrantolaketa geldoen momentuekin egiten dute topo. Baina oraindik ere, bizitzarekiko interesa galdua du, berarentzat mundua hutsik eta erakargarritasunik gabe dago orain. Emozionalki nahiz sozialki bakardade handia sentitzen du.

*4.3.3. Amaierako fasea*

Bere bizitzaren garapena, onarpena eta berrantolaketaren unea da hau. Haurra bere inguruarekiko interesa eta motibazioa sentitzen hasten da, desio edo nahi berriak sentitu eta adierazten ditu. Egokitze aldi hau, giza harreman berriekin lagunduta etortzen da. Aldi berean, hildakoaren objetu pertsonalez aldentzen joango da, esanguratsuenak bakarrik mantenduz. Tristura egoera gutxituz hasten da, pena eta mina pixkanaka gutxitzen den ehinean, haurrak lasaitasun sentsazioak bizituko ditu. Doluaren amaiera, berriz ere maitatzeko gaitasuna berreskuratzen denean azaltzen da.

Aitzitik, dolua gainditzen ez badu, atxikimendu eza adierazten du hildakoarengan eta honek psikopatologia egoera batean amai dezake. Haur batek, gurasoetako baten galeraren aurrean, heldu baten moduan negar egin dezakeen arren, ondoko faktoreek eragina izan dezakete:

*Aurreko familia harremanak eta egitura:* Tentsio edo haserrealdi handiak dauden familietan, gurasoek haurrak abandonatzearekin mehatxatzen dituztenean edo harreman zailak edo bortitzak daudenean, errudunak senti daitezke edo sentimendu kontrajarriak pairatu.

*Albistea noiz eta nola ematen den:* Gurasoetariko edo familiako norbait hiltzean, gurasoei dagokie haurrari horren berri ematea. Haurra zenbat eta txikiagoa izan, beranduago esaten zaio. Heriotza bere buruaz beste egitearen ondorioa bada, gertatutakoa azaltzea gehiago kosta egiten da, errealitatea ezkutatuz eta deformatuz.

*Gurasoen jarrera:* Familiako norbait hiltzen denean, guraso nahiz ingurukuen egoera emozionala aldatu egiten da, bereziki gurasoetariko batek bere burua bakarrik ikustean. Heriotzak eremu ekonomikoan eragin handia izan ezkero eta gelditu den gurasoa lanean hasi behar badu edo ordu gehiago sartu behar baditu haurrarekin kontaktua edo harremana murriztuko du. Aipaturikoaz gain, ikastetxe edo etxebizitzan ere aldaketak jasan ditzake. Denbora murrizten denean kalitatea handitzea beharezkoa dela aholkatu behar da. Garapena egokia ez bada, konplikazioak sor daitezke galera jasan duen haurrarengan, hala nola, depresioa, ezaugarri psikosomatikoak, enuresia….

### 4.4. Doluaren prozesuan eragiten duten faktoreak

Doluak pertsona bezala garatzeko aukera suposa dezake, baita betirako zailtasun psikologikoak utzi ditzakeen faktore batean bihurtu ere. Haurrak aurkeztu dezakeen galerari aurre egiteko era edota faktore desberdin askoren esku dago:

- Defentsa edo konpentsazio mekanismoak dituen.

- Hildakoaren ezaugarriak (dependentzi fisiko eta emozional maila) eta berarekin izandako harremana (atxikimendu maila, konpondu gabeko arazoak, sentimendu kontrajarriak…).

- Haurraren adina, zenbat eta helduagoa izan, galera hobe onartzeko joera izaten da.

- Galeraren ezaugarriak; bapatekoa, bortitza, lehendik jakina zen edo erailketa izan daitezke, besteak beste.

- Aurreko eta ondorengo galerak.

- Familiako herentzia, erlijio eta kultura ikaskuntza.

- Bizirik dauden senitartekoen sentsibilitatea eta laguntza bere behar emozionalen aurrean.

- Heriotzaren aurrean erakusten duten jarrera, dela lortutakoa, ala ikasitakoa: guraso edo beste heldu batzuengandik behatutako erantzunak.

- Kanpotik jasotako laguntza.

Helduaren arreta ez da soilik galera jasan duenarengan zentratu behar, baizik eta, momentu horretatik aurrera galduko duena ere hartu behar da kontutan. Beste galera berri batzuk baditu, hasierakoa gainditu dezake baina bigarrenean arazoak izan ditzake egoera gainditzeko orduan.

Garrantzitsua da hiztegi egokia erabiltzea, baita haurraren adinera egokitua, baina infantilismoan erori gabe.

Informazioa asimilatzeko orduan ere faktore askok eragin dezakete:

- Haurraren ulertzeko gaitasuna, adina edo heldutasunean eragin dezakeen ezagutzan ezgaitasunen bat izatea.

- Aurre egiteko era.
- Helduak emandako argibide gehiago nahi izateak informazio bilakaera batean murgildu ditzake, honek larritasun handiagoa sorraraziz.
- Laguntza eskeiniko dion helduarekin duen harreman mota.
- Galera gertatu aurretik zuen egoera psikologikoa.
- Emango zaion informazio mota. Oso zaila da informazio abstraktua haurrei azaltzea.

Doluak izaera unibertsala badu ere eta kultura guztietan azaltzen bada ere, kultura eta erlijio adierazpen hauek eragin handia izan dezakete galera prozesuari aurre egiteko garaian.

Dolu konplexuaren prozesuetan adierazle komun batzu topa ditzakegu, hauen artean daude:

- Amaren galera 11 urtetik behera gertatzea.
- Gurasoetariko batek bere buruaz beste egitea.
- Aitaren galera mutiko nerabeetan.
- Hildakoarekin harreman gatazkatsuak izatea.
- Bizirik gelditu den gurasoak hildakoarekiko zuen dependentzi maila handiegia izatea.
- Senitartekoen partetik laguntza eskasa jasotzea.
- Gurasoen bigarren ezkontza eta irudi berriarekin harreman gatazkatsuak izatea.

- Etxean familia giro desegonkor edota desegokia egotea.

- Galera gertatu aurretik zailtasun psikologikoak izatea.

Galeraren sortzailea heriotza izaten denean, eta haurrari heriotzaren arrazoiak azaltzen ez bazaizkio, familia egoeraren jabe izanda ere, ez badute haurra behar bezala galerarako prestatu, aukera handiagoa egongo da haurraren doluaren prozesua era osasungarrian ez garatzeko. Kasu horietan, doluan adituak diren aholkularien laguntza komenigarria izaten da, baita haur psikologo batekin harremanetan jartzea ere.

Naturala da haurrengan jarrera, sentimendu eta erantzun desberdin edo iraunkorrak azaltzea, baina ondoko baldintzetako gehienak aldi berean azaltzen badira, profesional batekin harremanetan jartzeko ordua iritsi dela adieraz dezake:

- Negar gehiegi egiten du galeraren momentutik.

- Bi edo hiru hilabete igaro ondoren ez da hobekuntzarik egon.

- Bortizkeria eta gehiegizko erantzun erretxinak. Sarritan haserretzen da eta denbora luzez.

- Umore aldaketa nabarmenak ditu.

- Bakarrik egotea bilatzen du etengabe, ingurukoen laguntza ekidinez. Bere baitan murgildurik egoten da luzaroan.

- Loan aldaketa nabarmenak ditu, amets gaiztoak edota insomnioa, besteak beste. Elikaduran ere aldaketak izan ditzake, janari ohituretan aldaketak, pisua galdu edo hartzea…

- Eguneroko bizitzako ekintzetan despisteak ditu.

- Jarrera aldaketa handiak.

- Ekintza edo erantzunen etengabeko errepikapena.
- Nota eta eskola etekinen jaitsiera.
- Lagunengan, edota lehen gustokoak zituen ekintzetan ibiltzeko interes falta.
- Gogo eza, sentiberatasun eza eta orokorrean bizitzaren interesa galtzea.
- Etorkizunean negatiboki pentsatzea denbora luzean.

## 5. DOLUA HAURRETAN

Sumintasunaren aurrean haurrak izan ditzakeen kanpo erantzunak edo agerraldiak helduarenak baino deigarriagoak izan daitezke bere pultsuak kontrolatzeko zailtasunak dituelako, besteak beste. Momentu horietako gertakarien, ikusitakoaren eta entzundakoaren interpretazio zuzena egiteko gaitasunak ez dituztelako garatu. Honetaz gain, errealitatea era finkoagoan bizi dute eta iraganeko aspektu ezberdinak gogoratzeko zailtasunak izan ditzakete.

Haurrak heriotzaren berri izaten duenean, ondoko erreakzioak izan ditzake.

*Heriotzaren errua nirea al da? Nik sortu al dut?*

*Niri gerta al dakidake?*

*Nork zainduko nau?*

Haurrak hiru galdera hauei erantzuna bilatzea ezinbestekoa da, baita heriotzaren benetako zergatia eta bere ustezko zergatiak baztertu behar ditu. Ez bazaio heriotzaren zergatia azaltzen, eta bere galderak ez badute erantzunik jasotzen, galera hori istorio misteriotsu batean bihur daiteke.

Heriotzaren berri izandakoan, haurrak erreakzio desberdinak izan ditzake:

Negar leherketa.

Negarrik ez egin eta bere baitan murgiltzea, harremanak baita kontaktua ekidinez. Egoera hauetan, helduok laguntza sareak topa ditzakegu; laguntza elkarteak, osasun adituak, lagunak… haurrek aldiz, ez dute horrelako baliabiderik aurkitzen. Penaren aurrean oso erreakzio ezberdinak izan ditzake: erruduntasuna, baztertua sentitzea, zaurkortasuna, kontzentrazio eza, insomnioa, erretxinduta egotea, banaketaren aurrean larritasuna edo hildakoa zergatik hil den arrazoitzeko fantasiak (haserraldi baten ondoren bidaia bat egin, baina itzuliko dela…), jarrera itzulgarriak (behatza zurrupatzen hastea, enuresia, enkopresia, autonomía galtzea, esfinterren kontrola galtzea…). Aipaturiko jarrera hauek larritasun eta beldurraren aurrean aurkezten dituen ohiko erantzunak dira.

Beste batzuk hiperaktibitatearekin erantzuten dute. Haur hauen gurasoek gehienetan haurrak dolua pasatu duela uste dutenean gerta daiteke. Beste batzuk bortitzak bihurtzen dira, euforikoak, hildakoaren jarrerak bereganatu eta berarekin identifikatzera iritsiz.

Haurrentzat hain gertukoak diren marrazki bizidunek ere ez dute asko laguntzen, izan ere, bertako pertsonaiak hil eta berpiztu egiten dira sarritan, edota hildakoan, mamu bihurtzen dira ere.

Gehienetan, larritasun eta urduritasun sintomak aste batzuetan konponduko diren arren, beste kasu batzuetan, ez da hala gertatzen. Galeraren aurretik gertuko beste galera bat izan badu (gurasoen banaketa, gaixotasun larria…) haur honek, erantzun bortzitzagoak izan ditzake.

Aldiz, kolpe txikiagoa eragin dakiokeen beste dolu bat bizitzen duenean (maskota, lotura txikiagoa duen familiako beste kide bat….) haurra ondorengo galera batera presta dezake. Egoera hau negatiboa ere izan daiteke, heriotzak denbora berdintsuan gertatu eta beharrezko agerpen nahiz baliabideak eskeintzen ez badizkiogu haurrari, dolu prozesuan nahastuz.

## 5.1. Gertutasunaren araberako galerak

Dolua era ezberdinetan azaltzen da haurrengan, hildako pertsonaren gertutasuna eta lotura harremanen arabera. Arantxa Iturbek "Las estrellas no conceden deseos" liburuaren itzulpenean adierazten duen moduan.

### *5.1.1. Gurasoetako baten heriotza*

Gurasoetako baten heriotza gertatzen denean, faktore desberdinek baldintzatzen dute haurrak izango duen doluari aurre egiteko orduan: guraso horrekin zuen harremana, haurraren adina, haurraren heldutasun emozionala, gaixotasunaren bilakaera prozesua edo heriotzaren gertaera nolakoa izan zen, hau da, berehalako gaixotasuna izan ote den, espero gabea izan bada edota gurasoaz agurtzeko aukerarik egon ote zen.

Haurrak zenbat eta urte gehiago izan eta heldutasun handiagoa erakutsi, errazagoa izango da harekin dolua lantzea. Aipaturiko arrazoiez landara, hildakoarekin zuen harremana eta heriotza prestaketa gehiago izateak, berebiziko garrantzia izango du prozesu luze bezain mingarria den doluan. Horrela, aitarekin harreman oso ona ez zuen haurrari aita hil egiten bazaio eta gainera bapateko gertakaria izan bada, dolua lantzea hagitz zaila suertatu daiteke. Aldiz, hildako guraso horrekin identifikazio handia sentitzen duen kasuetan, galera izugarria izanik ere, honi aurre egitea baldintzatzen du.

Haurraren adina eta bereziki heldutasun mailak nabarmen eragiten du, izan ere, heldutasunean aurrera egiten duen arabera, minari aurre egiteko baliabideak ugaritu eta indartu egiten baitira. Naturala da haurrak bizirik gelditu den gurasoarengan gorrotoak, haserraldiak edota neurrigabeko sentiberatasuna erakustea.

Hona hemen, doluaren prozesua ondo bideratu daitekeen adierazten dituzten adierazpen batzu:

- Gurasoekin harreman eta esperientzia zoriontsuak izan dituen.

- Hildakoaren heriotzaren unean haurra bertan egon eta gertatutakoaren lekuko izan bada, laguntza psikologikoa eska dezake.
- Galeraren albistea behar bezalako baldintzetan eta berehala eman bazaio.
- Heriotzaren ostean haurraren behar fisiko, emozional eta kognitiboak asetuta egotea.
- Haurrak heriotzaren osteko erritualetan parte hartu nahi izatea.
- Atxikimendu haundia dagoen kasuetan, aiton-amonetako bat hiltzen denean, gurasoetako baten heriotzarekin izandako erantzun berberak erakutsi ditzake haurrak.

*5.1.2. Anai-arreba baten heriotza*

Hiltzen den pertsona, haurraren anai edo arreba bada, erruduntasun osagaiak azaldu eta hazi daitezke. Izan ere, bere buruarekin identifikatuta sentitzen den kasuetan, bere heriotza gertuago ikus dezake. Hildakoarekin sentitu dezakeen identifikazioak bestearen arazoen erantzunkizuna bereganatuz eta heriotzaren arduradun sentiarazi. Gisa honetako egoeren aurrean sarritan jokabide itzulgarriak ager daitezke. Bederatzi urte inguruko gazteak hildakoarengan sentimendu kontrajarriak izan ditzake. Alde batetik min handia izango du anaia edo arreba hil delako eta ezingo duelako gehiagotan berarekin jolastu, baina bestetik, gurasoek doluaren prozesua behar bezala kudeatzen ez badute, bere arreta galdu duela sumatuko du. Bere anai-arrebak egin dionagatik, hau da, hiltzeagatik, gorrotoa edota bestelako jarrerak sor ditzake, gurasoak gorrotatzera iritsi arte.

Familia anitzen kasuan, anai-arreba zaharrenetako bat hiltzen denean, gurasoen arreta seme txikienarengan zentratzen da, baita haurrari eskatu diezaiokete txikiaren zainketaz arduratzea, gauzak horrela, neba edo arrebaren galeraz gain, lagunengan edota autonomía mailan ere galera sentitu dezake.

Haurra gazteagoa bada eta oraindik gurasoak jaungoiko edo boteretsutzat dituzten momentuan, gurasoenganako haserrea azaldu daiteke, bere ikuspuntuaren arabera, neba-arrebari hiltzen utzi diotelako.

Familian haur bat hiltzen denean, gurasoek min handia sentitzen dute eta ohikoa izaten da bere anai edo arrebari behar bezalako arreta ez ematea, horrela, askotan, haurra lekuz kanpo edo baztertua sentitu daiteke, abandonatua. Egoera honek, noski, familia giroan zailtasunak ekarriko ditu.

Hona hemen, doluaren prozesua ondo bideratu daitekeen adierazten dituzten adierazpen batzu:

- Gurasoek doluaren prozesua era osasuntsu batean ahalbidetu badute.
- Hildakoarekin lotura afektibo handia bazuen.
- Ez bada heriotzaren momentuaren lekuko izan edo heriotza ez bada azkar gertatu. Neba-arreba hiltzen ikusi badu, ez zaio berehala ahantziko eta irudi hori bere gogoan txertauta gelditu daitekeen oroitzapen latz batean bihur daiteke.

## 5.2. Doluan dagoen haurraren autoestima

Edozein pertsonaren autoestima ukitu edo jeitsi dezakeen kasu gehienetan ematen den faktoreen zerrenda ondokoa da:

- Bortizkeria edo umilazio traumatiko luzeak.
- Biktima kronikoaren identitatea.
- Harrapatu ezinezko ametsen atzetik ibiltzea.
- Depresioa.

Honek esan nahi du haurrak ez duela autokontzeptuan aldaketarik izan behar dolu prozesuak dakarren sumintasunean murgilduta egoteagatik. Aldiz, aipaturiko lau kasu horietako bat jasanez gero, bere autokontzeptuan aldaketak egon daitezke.

Zoritxar batek ez du inoren autokontzeptua aldatzen. Hala eta guztiz ere, beraien auto-pertzepzioa deformatu duten haurrek beraien buruarekin gustura sentitzeko aukera gutxi dituzte. Ikastetxetik osasun etxera bidaltzeko aholkua jasotzeak ez du esan nahi ikastetxeak ez duela ezer egin, edota egiteko asmorik duenik ere. Alderantziz, haurrak eskolan ordu asko pasatzen dituelako, familia eta kanpoko esku hartzaile adituen bitartekaria izan daiteke, aditu desberdinen koordinaketa ahalbidetuz.

Haur bakoitzak galera baten aurrean izango duen erresistentzi maila aurrikustea oso zaila da. Zazpi urtez azpikoak, bere familiako kideen erantzunak behatuko ditu gertakariei esanahia jartzeko helburuarekin.

Autoestimarako eragin kaltegarriena *indefentsio sentipenaren* barneraketa izango da eta doluaren prozesu mingarri honetan sortzen diren egoeretan kontrol eza sumatzen duenean gertatzen da, bereziki haurraren iritziak behin eta berriro kontutan hartzen ez direnean. Lagun edota lankideen partetik, gelan, jolastokian edo kalean bortizkeria gaiztoak jasatzen baditu, indefentsio sentipena areagotu daiteke.

Eskola giroko kideek laguntza sare handia edota kalte handia eragiten ahal diote, hauen jatorria eta helburuaren arabera. Horrela, haurrak doluaz gain, eskolan akosoa edo jazarpena jasaten ari bada, bere autoestima erabat kaltetua suertatu daiteke, bere burua egoeraren errudun bezala ikusiz eta bere burua gorrotatzera iritsi daiteke. Honek ondorio latzak ekar ditzake haurrarengan, bereziki depresioa pairatzeko aurrekariak baditu. Kasu hauetan bere buruaz beste egiteko ideaiak bereganatzera iritsi daitekeelarik.

Beraz, dolu egoera baten aurrean eskolak hainbat aspektu bermatu beharko ditu, besteak beste:

- Jazarpen egoerarekin bukatu eta berriro gerta ez dadin neurriak hartu, biktimaren ziurtasun fisikoa eta emozionala bermatuz.

- Heriotzaren pedagogia gela barruan landu.
- Eskola komunitate osoan haurraren egoeraren ulermena, laguntza azalpenak nahiz errespetua bermatu.

## 6. DOLUAREN PEDAGOGIA

Eskoletan, txikitatik hasi beharko litzateke heriotzaren pedagogia lantzen, adin bakoitzari dagokion ulermen ahalmena errespetatuz. Astero lantzeko gaia ez da, baina ezin dugu ezkutatu. Gaur egun gizarteko zenbait alderdietatik, heriotzaren pedagogia aldarrikatzen da, familiatik eta eskolatik batez ere. Aurretik hainbat adituk gauza bera eskatu zuten, besteak beste, Elisabeth Kübler-Ross, Louis-Vincent Thomas, Octavi Fullat, Javier Gafo, Karl Jaspers,… Heriotzaren pedagogiaren xedea, ez da umea heriotzatik babestea, baizik eta txikitatik heriotzaren egiazko izaeraz ohartzen laguntzea. Heriotza gaia, hezkuntzan lantzea garrantzitsua da, eragin pedagogikoa duelako umeen prestakuntza psikoemozionalean.

Heriotzaren pedagogiaren helburuak adinaren arabera desberdinak izango dira, baina badaude baliagarri izan daitezkeen helburu orokor batzuk, *Concepció Poch-ek* "¿Por qué es necesaria una Pedagogía de la muerte?" artikuan defendatzen duen moduan.

- Norberaren bizitzaren balioei buruzko hausnarketa egin eta une bakoitza bakarra izango balitz bezala sakonki bizitzeko beharraz ohartzen lagundu.
- Heriotza bizitzaren bukaera naturala dela ulertzen lagundu.
- Haur eta gazteei, heriotzarekin ahalik eta estuasun eta larrialdi gutxien sentitzen lagundu.
- Haur eta gazteei maite dituzten pertsonen edo animalien heriotzak gertatzen direnerako tresnak eman eta gaia landu.

- Doluaren dinamika ulertu eta maite diren pertsonen galeren aurrean sortzen diren erreakzioak ulertu.

- Maite diren pertsonen galeren aurrean norberaren sentimenduak adierazteko gai izan eta besteen adierazpenak entzuten eta ulertzen ikasi.

- Etxeko doluaren garrantzia; berraurkitu eta maite diren pertsonez inguratuta hiltzearen garrantzia.

- Maitatzen den pertsona baten heriotza norberaren hazkunde pertsonalerako baliagarria izateko bideak aztertu.

Ikasgelan, heriotza edota galera baten ondorioz, sor daitezkeen krisialdien aurrean, doluaren pedagogiak eskaintzen dizkigun proposamenak, lagungarri suertatuko zaizkigu. Une larri baten, zein urrats eman behar diren, eta zelan bideratu jakitea lasaigarria da. Sarritan gertatzen baita, hezitzaileak, lagundu nahi arren, emozionalki blokeatuta geratzen direla.

- Taldean lan egitea garrantzitsua da, eta gelako krisi egoerari aurre egiteko erantzunkizuna, taldearena izango da. Heriotzaren berri beste iturri batzuetatik jaso baldin badugu, familiarekin harremanetan jarri eta gure ikaslearen egoeraz interesatu, gure laguntza eskainiz.

- Familiak egingo dituen erritualen berri jaso ondoren, eta ikaslea eskolara ez dela etorriko ziurtatu ondoren, komenigarria da gainontzeko ikasleekin talde dinamika bat egitea, sentitzen dutena adieraz dezaten. Dinamika hau ikasgelan, kaltetutakoa ez dagoenean, landuko da. Gero, gelara itzultzen denean, tutoreak emango dio gelakideen mezuaren berri, baina gelatik kanpo, beste ikaskideen presentzia barik.

- Zenbait kasutan, erritüetan presentzia sinbolikoa izateak, lagundu egiten du (elizkizunetara joatea, lagunen izenean dolumina adieraztea...), betiere familiaren intimitatea eta nahia errespetatzen bada.

- Ikaslea gelara itzultzen denean, kontuan izan zelan ari den garatzen bere dolua, eta dinamikak egiteko ea prestatuta dagoen.
- Ikaskide bat hil baldin bada, komenigarria da bere mahaia hutsik eta bere erreferentzia batekin uztea, ikasturtea amaitu arte. Gelakideek denbora behar dute agurtzeko, eta bukaeran, talde dinamika bat egin daiteke hildako lagunaren oroimenarekin lotzeko.
- Dolu konplexu kasuetan, eskolak laguntza psikologikoa proposa dezake. Hainbat kasutan, familiak ez dira konturatzen behar horretaz edo ez dakite nora jo.

## 6.1. Baliabide psikopedagogikoak

2008. urtean, Patxi Izagirrek Hik Hasi aldizkarian, haurrei heriotzaren aurrean minaren adierazpena normalizatzen laguntzeko, zenbait baliabide eta gomendio propasatu zituen.

### *6.1.1. Entzute aktiboa*

Galera esanguratsuetan izaten diren dolu prozesuetan, komunikazio aldagaiak, berebiziko garrantzia du.
Laguntzea arte bat da, irakatsi eta ikas daitekeena, baina ezaugarri batzuk eskatzen ditu: errespetua, elkartasuna, pazientzia, positibotasuna eta *enpatia*. Beste norbait enpatikoki laguntzeko kalitatez entzuten jakin behar dugu eta ekintza hori, *entzute aktiboa* deritzo. Honelako elementuak ditu: hitza kendu gabe entzuten jakin behar da; arreta eta errespetua adieraziko duten distantzia eta gorputz jarrera izan behar da; hitz egiteko baino entzuteko interes handiagoa izan behar da; eta solaskidearen hitzezko mezuak nahiz hitzezkoak ez direnak arretaz jaso behar dira. Horrez gain, beste baliabide batzuk ere erabili behar ditugu, hala nola, galderak egiteko eta laburtzeko baliabideak, eta informazioa itzuliz elkarrizketa gidatzeko baliabideak.

Horrela, laguntza behar duen pertsonak arretaz entzuten diotela eta ulertu egiten dutela sentituko du.

Entzute aktiborako saihestu beharreko adierazpenak:

- "Ez arduratu" esatea
- "Ez negarrik egin" esatea.
- "Dena ondo joango da. Ez horretan pentsatu" esatea.

Entzute aktiborako saihestu behar diren jarrerak ondokoak dira:

- Iritzia ematea.
- Epaitzea.
- Aholkatzea.
- Norberaren bizipenetan oinarrituta orokortzea.
- Paternalista izatea.
- Presa duzula adieraztea inolako begirunerik gabe.
- Oztopo fisikoak edo ez fisikoak egotea:altzariak, argia...
- Jarrera teknifikatua erabiltzea.
- Ihes egitea.
- Gehiegizko informazioa ematea.
- Baliorik gabeko informazioa edo une horretan egokia ez dena ematea.
- Gezurra esatea.

Entzute aktiborako bultzatu behar diren jarrerak, ondokoak izan daitezke:

- Hitzezkoa ez den komunikazioa zaindu behar da: ahotsaren tonua eta bolumena.
- Errespetuzko harreman fisiko maitekorra izan behar da (ondo hartzen badu).
- Jarrera atsegina edukitzea.
- Entzutean lasaitasuna adieraztea.
- Aurreiritziak ez izatea.
- Talde lanean aritzeko jarrera izatea. Bakarkako zein taldeko elkartasuna erakutsi.
- Galdetzeko eskubidea sentitzea.

### *6.1.2. Erantzun enpatikoa*

Enpatiak adimen emozionalarekin lotura estua du. Enpatia garatzerakoan norberaren emozioak jokuan sartzen dira eta besteen sentimenduak zentzuz ulertzen ditugu. Sentimendu horiek bihotzarekin sentitu eta adimenarekin konprenitzen ditugu. Enpatiak besteen ikuspuntua, pentsamenduak, nahiak eta sinesmenak ulertzea dakar. Heriotza ondoko egoeretan, irakasle edota hezitzaileek ez dakite nola hurbildu, eta egitekotan ez dakite zein esaldi erabili. Beraiengandik erantzuna espero dela argi daukate baina erantzun hau nola gauzatu? Hona hemen, egoera horietan erabil ditzakegun adierazpen mota batzuk:

- Begietara begiratzea.
- Interesa eta ulermena adieraztea
- Intimitatea errespetatzea

- Toki egokia bilatzea
- Une horretan mina sentitzen duena erantzun egokiena emango dionarengana zuzentzea (sendagilea, gizarle laguntzailea, psikologoa, abadea…).
- Geure burua hobeto ezagutzeko, lehenik eta behin galerei, heriotzari, sufrimenduari eta doluari buruz geure buruarekin lan egitea.
- Guztia komunikazioa dela onartzea.
- Sufrimenduan laguntzeko ikastea eta praktikatzea.
- Errespetukzko isiltasuna izatea.
- Nohizean behin baliagarria izaten da besteak komunikatzen duenari buruz ulertzen duguna laburtzea, esateko. Adibidez:*"ea ondo ulertu dudan: beldur eta triste sentitzen zarela uste dut…".*
- Era honetako esaldiak esatea: *"gogorra benetan", "logikoa horrela sentitzea", "gizalegezkoa da horrela sentitzea", "beldurtuta eta triste egoteko modukoa da","une honetan ez dakit zer esan. Laguntzeko prest naukazu*".

Berri txarrak emateko, erabil ditzakegun esamoldeak:

- *Gertatzen ari dena garrantzitsua da…*

*- Egoerak okerrera egin du…*

*- Gure artetik alde egin du.*

*- Bai, hil egin da.*

*- Nahi izanez gero, horrelako uneetarako telefono zenbakiren bat eskaini diezazuket.*

Galderak egiteko formulak:

*- Nola gertatu zen?*

*- Zerk arduratzen zaitu?*

*- Zalantzarik ba al duzu?*

*- Nola jakin zenuen?*

*- Elkarrekin egin dezakegun zerbait ba al dago?*

*- Beste zerbaitez hitz egin nahi al duzu?*

*- Berba egiteko, laguntzeko… norbait bilatzea nahi al duzu?*

*- Zure sendagilearekin hitz egin al duzu?*

*- Bakarrik egon nahi al duzu?*

*- Bakarrik uztea nahi al duzu?*

*- Egun batzuk barru dei diezazuket?*

*- Beste zerbait egin dezaket?*

### *6.1.3. Elkarlana*

Haurren ikaskuntzaren funtsezko oinarriak behaketa eta imitazioa dira. Horregatik, badakigu, helduen baitan dagoela neurri handi batean haurrak heriotza barneratzea.

Sarritan, heriotzaren inguruan ez dira erantzun egokiak topatzen eta zaila suertatzen zaigu besteei erantzunak ematea. Alabaina, helduon beldurrak haurrengan islatzen baditugu, beraien bitarteko propioak sortzeko aukera kentzen diegu. Hezitzaileentzat, (guraso zein irakasle), lagungarri izan daitezkeen jokabideetako batzuk dira ondorengoak:

- Beti haurren galderak entzun. Ezinegona sortzen diena itaun dezatela.

- Heriotzen aurrean, utzi doluaren errituetan parte hartzen, betiere beraiek nahi dutenean eta beraien erara: marrazki bat eginez, lore batekin...
- Ez sufritzeko asmoz esaten dizkiegun gezurrak eta sortzen dizkiegun itxaropen faltsuak ekidin.
- Emozioen adierazpena bultzatu ipuinen, marrazkien, musikaren... bidez.
- Haurrak galdetzen duen puntura arte informatu.
- Berak errurik ez duela adierazi, nahiz eta hildakoarekin haserretuta egon izana.
- Hildakoa eskutitzekin agurtu, marrazkiekin, argazkiekin, grabaketekin...
- Galeraren errealitatea barneratzen duten eta komunikatzea ahalbidetzen duten metaforak erabili: ilargia, zuhaitza, hostoak, itsasoko olatuak... naturako elementuak.
- Heriotza bizitzaren zati banaezina dela erakusten duten esperientziak erabili. Aitona, animalia bat, ezagun bat... hiltzen den unea aukera ona izan diteke bizitzaren eta heriotzaren zikloaz hitz egiteko.
- Komunikabideetatik edo adin txikikoentzat egokiak ez diren filmetatik heriotzari buruz jasotzen duten gehiegizko informazioa ekidin. Gure txikiak ezin barnera dezaketen neurrigabeko informazioaren aurrean jartzen ditugu eta horrek antsietate eta irudimenezko ezbeharrekiko beldurra sortzen die.
- Porrotaren (frustrazio gisa ulertuta) ikaskuntza bultzatu. Heriotza da frustrazioen adierazgarri handiena eta lagungarri izan liteke planteamendu curricularretako erreferentzia pedagogiko-filosofiko modura.
- Irakasle taldeari laguntza eskatu, anabasa eta krisi egoeran bakartuta gelditu gabe.

| EGOERA | ERABIL DAITEZKEEN JARRERA ETA FORMULAZIOAK |
| --- | --- |
| 6 urteko haur bati 8 urteko anaia hil zaio.<br>Jarrera itxia du eta haserre dago gurasoekin. | **Jarrera**: Teistuinguru informala bilatu eta bere ondoan jarri, errespetua eta ulermena adieraziz.<br>**Adierazpenak:**<br>• Azken aldian oso isilik zaude. Ez duzu jolas egiten eta haserre zaudela dirudi.<br>• Zure anaia hil delako triste zaudela uste dut…<br>• Hitz egin nahi al duzu? |
| 11 urteko haurrak ez du inolako interesik agertzen aitonaren heriotzari buruz hitz egiteko. | **Jarrera**: Aurreko kasuan bezala, teistuinguru informala bilatu eta bere ondoan jarri, errespetua eta ulermena adieraziz.<br>**Adierazpenak:**<br>• Ulertzen zaitugula eta lagundu nahi zaitugula jakinarazi nahi dizut.<br>• Ona da gertatzen zaigunaz hitz egitea. Gero hobeto sentituko zara, guri ere gauza bera gertatzen zaigu…<br>• Beraz, hitz egin nahi duzunean, entzuteko prest gaude, ados?<br>• Zurekin egotea atsegin dugu, zuk hitz egiteko gogorik ez izan arren… |
| 3 urteko haurraren ama hil egin da. Ama itzultzea nahi du. Orain aitarekin bakarrik bizi da. | **Jarrera**: Adin tarte honetan, segurtasun handia eskeini behar zaio haurrari, amaren faltan, babestua sentitu dadin.<br>**Adierazpenak:**<br>• Ama ezin da itzuli.<br>• Badakizu hil egin dela eta orain hor goian, zeruan, izan batean edo gure bihotzean egongo dela (bere bihotza dagoen lekua seinalatuz).<br>• Gauero, lo hartu aurretik, hurrengo egunean zehar egingo dugunari buruz hitz egingo diogu. |
| 5 hilabeteko haurdunaldia duen emakumeari 2 urte terdiko alaba hil egin zaio.<br>Gurasoak lur jota daude eta amak ez dio haurdunaldiari behar besteko garrantzirik ematen. | **Jarrera**: Familiaren sentipenak kontrolatzea.<br>**Gomendioak:**<br>• Eskuak sabelean jarrita, elkarrekin arnasa hartzea.<br>• Umekiaren aurpegia irudikatzea eta hildakoarena ere gogoratzea.<br>• Elkarrekin negar egitea, umekiak ere parte har dezan. |

**Taula 1.** Doluarekin lotutako zenbait egoeratarako jarreren eta formulazioen ereduak proposatu zituen Patxi Izagirrek 2003. urtean HIK HASI aldizkariaren monografikoan.

### 6.1.3. Familia eta eskola

Dolua familian bereziki lantzen den prozesua bada ere, haurrek bere denboraren zati handi bat eskolan ematen dute, horregatik, eskola babesleku izateko aukera baliatu dezake. Horretarako ezinbestekoa da eskola eta haurraren arteko konfidantzazko harremana izatea, aldi berean, haurrak heriotzari buruzko informazioa duen neurrian, zailagoa izango da, prozesuan negatiboki eragin dezaketen mitoak azaltzea.

Hezkuntza komunitatea heriotzak sor ditzakeen eraginez jabetu behar da, haurren beharrei behar bezalako erantzuna emateko. Heriotzaren kolpea ez da erreza eta askotan ezin da aurrikusi, askok ezin dute onartu ere. Horregatik da hain garrantzitsua irakaslegoa era egokian formatuta egotea, baita gaiarekiko sentiberatasuna azaltzea ere (Holland, 2008).

Esku-hartze egoki bat sustatzeko, ezinbestekoa da irakaslea ikasleen egoera behatzea, momentu oro haurra kezkatua edo etsituta dagoenean bereziki, bakoitzaren beharrak era egokienean asetzeko. Elkar ezagutza eta familiarekin etengabeko kontaktua izatea baliagarria izaten da, beti ere haurraren dolu prozesuan laguntzeko.

Bestalde, galera pairatzen ari den ikaslearen lankideak bere itzulerara prestatzen joatea oso lagungarria izaten da, hauen premiei era pedagogiko batean erantzuteko asmoz. Bere lankideei laguntasuna eskeintzeko orduan ere baliabideen beharra izan dezakete hauek, eta horretarako irakasle taldea prestatua eta antolatua egotea ezinbestekoa da.

Eskolako errutina ahalik eta gutxien aldatzea gomendatzen da, egonkortasuna eta segurtasuna bermatzeko orduan. Izan ere, arauak, ordutegiak edota errutinak mantentzea oso lagungarria izaten da doluan dagoen haurrarentzat. Ildo berean, familiaren egunez eguneko kontaktuaren bidez, aldaketa edota salbuespenak egitea ere interesgarria izaten da. Egoera honetan, haurrari "persona berezi" bat aukeratzen uztea Hollandek 2008. urtean goraipaturiko baliabide pedagogikoetako bat da. Pertsona berezi honekin egon daiteke zailtasunak dituen momentuetan, baita leku berezi eta lasai bat eskeintzeko aukera dago, haurrak lasai eta babestuak sentitzeko.

Kasu batzuetan, haurrari etxera deitzeko aukera ematen zaio, batzuetan, gurasoak edo senitarteakoak ere hil daitezkeela uste bait dezake.

Hezkuntza taldea aipaturiko aferen jabe izan behar duenez, psikologo espezialisten partetik formakuntza eta dokumentazioa jasotzea oso lagungarria izaten da. Hollen experientzia izan daiteke era honetako laguntza emozionala garatu zuenetako bat, Ingalaterran Lost for words izeneko proiektuan frogatu zuen moduan. Hulleko Dove House humezurtz etxearekin elkarlanean garatu zuten proiektua, bertako psikologia zerbitzuarekin batera. Dolua haurretan eta honek ikasgelan sor ditzakeen ondorioak aztertu zituzten, hauei erantzun egokia emateko helburuarekin. Era berean, ikasketa plana era proaktiboa batean erabili daiteke, etorkizuneko galerei begira.

Lost for words proiektuaren eragina isolatzea zaila suertatu zitzaien, experientzia aurrera eramateko orduan, eragile desberdinek baldintzatu bait zuten. Hala eta guztiz ere, honen erantzun positiboek bultzatuta, irakasle talde formatuen eskola kopurua igotzen joan zen, haurrengan egokitze emozionalean aurrera pausu nabarmenak lortuz, Holland inguran.

## 7. BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Ikasgelan, heriotza edota galera baten ondorioz, sor daitezkeen krisien aurrean, doluaren pedagogiak eskaintzen dizkigun proposamenak, lagungarri suertatuko zaizkigu. Une larri baten, zein urrats eman behar diren, eta nola bideratu jakitea lasaigarria da. Sarritan gertatzen baita, irakasleak, lagundu nahi arren, emozionalki blokeatuta geratzen direla.

Taldean lan egitea garrantzitsua da, eta gelako krisi egoerari aurre egiteko erantzunkizuna, taldearena izango da. Horretarako, tutoreak, baita hezkuntza komunitate osoak beharrezko baliabideak proposatzea ezinbestekoa da.

Galera prozesu ezberdin mota asko egon daitezke, bere jatorriaren arabera, orain arte aipatu dudan moduan. Ondoko jarduera eta proposamen desberdinen zerrenda

honetan, galera eta dolu prozesuak lantzeko erabilgarriak izan daitezkeen ekintza eta filmen bilduma zehazten da.

## 7.1. Irakurgaiak

Aipagarria da Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan eta bereziki lehenengo mailan ipuinei ematen zaien garrantzi berezia. Normalean, ipuin klasiko edota herrikoiak kontatzen zaizkie haurrei, gaixotasuna, gurasoen banaketa edota doluari buruzkoak entzutea berriz, ez da ohikoa.

Hala ere, aipaturiko gaiei buruzko ipuinak kontatu dituzten irakasle askok lortutako emaitzak oso positiboak izaten direla aipatzen du Anna María Cassalsek beste autore batzuekin batera 2012 urtean idatzi zuen “Duelo y escuela, educar en el sentido ante la pérdida” liburuan.

### *7.1.1. Ez da erraza Kattagorri*

Kalandraka argitaletxeak 2003. urtean publikatutako ipuina da, Durant A. eta Glori D.k elkarlanean idatzitakoa. Bertan, Kattagorri txiki baten amaren heriotza kontatzen da letra lausoak erabiliz eta oso era ulergarrian. Haurrak azkar identifikatzen dira pertsonaiarekin, bereziki hau ere gaztetxoa delako. Amaren heriotza gertatzean oso maitekiro kontatzen da kattagorri-kumearen sufrimendua. Alde batetik, buruan bueltaka dituen sentimendu kontrajarriak (bakardadea, haserrea amaren faltagatik…) eta bestetik, aitaren ahaleginak semeari laguntzeko. Hontza ere, basoko laguna, saiatuko da kattagorriari babesa ematen, baina paisaiak eta inguruan duen guztiak amaren gogoa ekartzen diote.

Gaia ulertzeko zaila izan arren, oso modu gozo eta sinesgarrian dago islatuta. Berehala antzematen da protagonistaren tristura eta aitaren azalpen guztien aurrean bere ulertezintasuna. Aitaren egitekoa ere bikain agertzen da: ondoan dago beti, baina kattagorriak bakardadean egoteko momentuak ere errespetatuz. Izan ere, kattagorri kumeak gertaera ulertu arte ez baitu ez jolasteko ezta jateko gogorik. Amaieran, gaia

hobeto antzematen duenean, kattagorriak berak aitaren presentzia eskatuko du, sentitzen duena konpartitu behar duelako.

### *7.1.2. Betiko*

Ttarttalok 2005. Urtean argitaratutako ipuin honen idazlea, Alan Durant izan zen, ilustratzailea berriz, Debi Gliori eta euskaratu zuena Joxan Ormazabal. Ipuinaren istorioaren protagonistak, basoan elkarrekin oso zoriontsu bizi diren lau animalia dira. Egun batean azeria hil egiten da eta etxean bizi diren igaraba, satorra eta erbiak sentitzen duten tristura eta lagunaren falta handia ezin dute gainditu. Urtaro oso bat igaro ondoren, bere laguna den urtxintxa bixita bat egitera joaten da bere etxera eta egoerari aurre egiten erakusten die.

Dolua, bere zentzurik zabalenean lantzeko proposamen egokia da hau, izan ere, asko maite izandako persona hori galtzean sentitzen diren emozioak, jarrera kontrajarriak eta hausnarketa egiteko aukera eta hauek konpartitzea ahalbidetzen baitu. Dolua gainditzeko proposamen eta ideiak irakastearekin batera. (1. Eranskina)

### *7.1.3. Etxe bitan bizi naiz, eta zer?*

Elkarrek sortutako "Eta zer?" izeneko liburu bilduman oso irakurgai egokiak daude, hauen artean, gurasoen banaketarekin lotuta dagoen eta Miren Agur Meabek idatzitako hau.

Sara, liburu honetako pertsonaia, etxe bitan bizi da orain. Gehienetan amarekin eta batzuetan aitarekin. Bietan dauka, ordea, bere tokia, bietan bere txokoa, eta asko maite dute bietan. Lehen, etxe bakar batean bizi zen, aita eta ama ere etxe bakar batean bizi zirelako. Baina gurasoak banandu zirenetik aita etxe batean bizi da eta ama bestean; Sara, berriz, bietan. Gurasoak bereiztu zirenean, Sara kili-kolo ibili zen, erabat galduta, bere ordu arteko mundua guztiz aldatu zelako. Baina orain egoera berrira ongi moldatu da, gurasoak banandu arren, ondo moldatzen direlako euren artean, eta Sarak badakielako bien etxean duela bere tokia, eta bien etxean duela maitasuna.

Miren Agur Meabek maisutasunez eta sentsibilitate handiz hurbildu da gaur egun etxe askotan bizi den auzi honetara: gurasoen banaketa eta horrek haurrei eragiten dizkien nahasteak eta arazoak. Ikuspegi baikorretik begiratzen dio auziari, fintasunez beti, gurasoen banaketaren eta horren ondorioen aurkiak eta infrentzuak agerian jarriz.

Egindako literatur testuen aipamenez gain,, Ermuako liburutegiek heriotzaren gaia lantzeko irakurgai bilduma bikaina sortu zuen 2012 “Heriotza ulertzen laguntzen diguten ipuinak” izenarekin. (2. eranskina)

Irakurgaien proposamenekin bukatzeko, ipuin eta jarduera proposamenen bilduma txikia eskeintzen du Xangorin argitaletxearen, “HIK HASI Heriotza heziketan” izeneko aldizkarian argitaratu zuten 2003. urteko uztailean. Jarraian aurkezten diren ipuinen erabiliz eta hauetan eduki ezberdinak jorratuz, hausnarketa nahiz heriotzaren gaia lantzeko jarduera desberdinak topa ditzakegu. (3. eranskina)

Aipaturiko jarduerak aurrera eramateko, ikasgelan konfidantzazko giroa eta sentimenduak elkartrukatzeko grina sustatzea ezinbesteko baldintza izango da. Haurrak heriotzaren gaiari buruz dituen kezka eta jakinmina asetzea izango da helburu nagusia.

### 7.2. Filmak

Zinema ez da soinu efektu, animazio edo dibertsioa ahalbidetzen duen sistema estetiko edo tekniko hutsa, errealitatea eta egungo gizartearen irudikapen adierazgarria erakusten duen artea baizik. Batzuetan era konzientean egiten den errepresentazio mota honen erabilera, asko zaindu beharrekoa da. Jakina da, gure gizartea limurtzailea dela eta komunikazioaren baliabideak erabiliz, ezarritako giza balio eta bortizkeria sinbolikoa transmititzen dutela. Horregatik zinemagintza baliabide hezgarria izan dadin, kontu handiz egin beharko da filmen aukeraketa, lagundu nahi dugun egoera bakoitza kontutan hartuta.

Gauza jakina da zinema hezkuntzan balio handiko baliabidea dela, filmek balio ezberdinen garapen edo sustatzeko aukera eskeintzen bait dute. Besteak beste, gizagabekeria, arrazakeria, elkarlana edo ingurumenaren babesa izan daitezke gizartean orokorrean eta gizabanoarentzat egokiak diren balioetako batzuk. Beraz, baliabide honen bitartez, hausnarketa eta adierazpena bultzatu daiteke, eskolako ikaskuntza elementu gisa.

Aitzitik, baliabide honen erabilpen egokia bermatzeko, aspektu desberdinak hartu behar dira kontutan, alde batetik, hezkuntzarekin lotura zuzena duten elkarte eta pertsonak erakustea, eta bestetik, filmen aukeraketa egokia egitea, izan ere, sarritan pertsonaia nahiz egoera ezberdinetan gizartearen handikeria eta miseriak erakusten dira.

Hona hemen aukeratutako film batzuen zerrenda:

### *7.2.1. Therabitiara zubia*

Gabor Csupok egin zuen fantasia eta abenturazko film hau, 2007. urtean Estatu Batuetan egina izan zen.

Jess Aarons arrotz sentitzen da eskolan, baita familian ere. Uda osoa darama gelako korrikalari arinena izateko, baina bere helburua zapuzten da eskolara ezustean iritsi den neska batengatik. Leslie Burke izeneko neskatilak "mutilen lasterketa"n parte hartzeaz gain, irabazle suertatzen da. Era berezi honetan elkar ezagutu duten arren, laster lagun minak izatera pasko dira. Lesliek fantasiazko istorio magikoak kontzatzea biziki maite du. Mutikoak aldiz, ordurarte izkutuan gordetzen zuen marrazkilari bikaina zen. Gauzak horrela, Lesliek irudimenez betetako mundo zabala erakusten dio lagunari. Elkarrekin Therabeitia izeneko erreinu sekretua sortzen dute eta bertara iristeko modu bakarra, bere etxeetatik gertu dagoen basoko arroila batean zintzilik dagoen soka zaharrean zabu egitea da. Bertan, erreinuko nagusiak dira, Maisu Ilunaren nahiz bere izakien kontra borrokatzen dira eskolako eta zapaltzaileez mendeku hartzeko planak egiten dituzte. Leslierekin lortutako laguntasunari esker, Jess betiko aldatu egiten da.

*7.2.2. Neskalagun hilotza*

Tim Burton eta Mike Johnsonek 2005 ean zuzendutako film hau, EEUU eta Erresuma Batuan burutu zuten, umore eta irudimenez betetako obra dibertigarria da.

Viktoriar garaiko herri hotz eta triste batean kokatzen den istorioa da hau. Nell eta William Van Dort arrantzaleen semea den Victor, dirurik ez duten bi aristokraten alaba den neskatxa gazte eta ederrarekin ezkontzekoa da. Elkar ezagutzen ez duten arren, ikusi eta berehala elkar maitemindu egiten dira. Ezkontzako entsaioa zapuztu eta gero, esan beharrekoak ikasi arte elizara ez itzultzeko esaten dio apaizak Victorri. Basoan murgiltzen da orduan elizkizunaren eguneko esaldiak ikasteko asmoz, baina halako batean, ezkontza eraztuna lurrera erori eta sustraia zirudien esku batek harrapatu zuen. Eskuaren atzetik Emily izeneko neskaren gorpua azaltzen da, ezkongai arropa jantzita, Victor bere senarra dela argudiatuz. Mutilari musu eman eta honek, konortea galduta lurrera zerraldo erortzen da.

Gorpuz betetako herri batean esnatzen da Victor eta izututa, non dagoen argitzea eskatzen du. Gorpuek erantzuten diote Hildakoen Munduan dagoela eta nahi gabe Emily izeneko gaztearekin ezkonduta dagoela. Emily bere maitaleaz maiteminduta zegoen eta harekin alde egitean lapurtu eta hil egin omen zuten.

Victor herritik ateratzea lortu arren, Emilyk harrapatu eta bere txakurra zen Itzalen hezurdura bizia oparitzen dio eztei-opari gisa.

Gurasoak ezagutzeko aitzakiarekin, Bizien Mundura itzultzeko eskatzen dio Emilyri eta itzultzea lortzen duten arren, istorioa oraindik asko korapilatzen da.

*7.2.3. Eguberri aurreko amets gaiztoa*

1993. urtean Estatu Batuetan sortu zen Eguberrietako pertsonaia eta jai egunen bilduma fantastikoa da.

Hallowen izeneko herri batean, Hallowen jaia ospatzen duten bitartean, “Kalabaza erregea” zoriontzen dute etengabe, antolatutako jaiaren arrakastaren ondorioz. Hala ere, Jack ez da alai sentitzen, izan ere, nekatuta dago urtero lan gaizto berdina egiteaz.

Hilerrian kexaka dabilen bitartean, Sally, harekin maiteminduta dagoen Flinkestein doktoreak hainbat panpinen gorputz atalak erabiliz sortutako oihalezko panpina, zelatan dago.

Ohianean barna bere txakur Zerorekin zuhaizti berezi batera iristen da Jack. Bertako zuhaitz bakoitzak, jaiegun bat irudikatzen zuen eta denek zeukaten barrura sartzeko atea. Gabonetako zuhaitza oso erakargarria iruditu zitzaion eta jakinminak, barrura sartzera bultzatu zuen.

Argiz, kolorez eta haur zoriontsuz betetako mundu ezezagun hori miresgarria iruditu zitzaion, han ez bait zeuden hauek izutuko zituen sorgin edota mamurik ere.

Pozaren pozez itzultzen da bere herrira eta bertan denak kezkatuta dabiltza bere bila. Ikusitakoaren berri ematen saitzen den arren, bizilagunek ez diote jaramonik egiten. Hurrengo urteko Hallowen eguna prestatzen hasi beharra dagoela uste dute.

Gauzak horrela, hurrengo urterako gabonak berak prestatzea erabakitzen du, maltzurkeria eta munstroak alde batera utzi nahirik. Herritar guztiak laguntzeko prest daude, Sallyk ere Santa Clausen jantzia egiten dio eta gainontzeko herritarrek opariak prestatzen dituzte.

Egoera horretan hasten dira Kalabaza jaunaren abentura dibertigarriak, Hallowen herria eta Gabonetako munduaren artean garatzen dira.

*7.2.4. Laugarren solairua*

2003. urtean Antonio Mercero zuzendari espainiarrak grabatu zuen film honek sari ezberdinak jaso ditu. Gaia zaila bezain gogorra izan arren, umore puntuak asko laguntzen du pelikula ulertu eta gustatzeko garaian.

Miguel Ángel, Izan, Dani eta Jorge izeneko nerabe talde honek duen poztasuna erabiliz, patuari nola aurre erakusten dute oso era dibertigarrian, bere ospitaleko egonaldia jasangarriago bihurtzen saitzen diren bitartean.

Traumatologiako laugarren solairu honetan laguntasuna eta taldearen partaide izatearen garrantziaz jabetzen dira. Asmo kolektibo hauen atzean berriz, norbere izaera nahiz, egoera pertsonalaren erantzunak daude; Miguel Ángelen bilatutako bakardadea, Jorgeren diagnotikoarekiko duen beldurra, Izanen oroitzapen ahaztezinak edota Daniren jakinmin emozionalak, besteak beste. Umorea da lagun talde honek patuari aurre egiteko erabiltzen duen indar menderagaitza.

### *7.2.5. Nire neska*

Famili giroko komedia dramatiko 90. hamarkadako arrakasta handietako bat izan zen. Estatu Batuetan filmatu zen pelikula honen zuzendaria Howard Zieff izan zen.

Veda, heriotzarekin obsesionatuta agoen 11 urteko neskatila, amaren partetik humezurtza da eta bere aitarekin bizi da. Bere lanbidea funeraria bat aurrera eramatea izanik, heriotza bere bizitzaren parte garrantzitsua da.

Neskatila bere ingeleseko irakaslearekin maiteminduta dagoenez, olerkigintza ikastaro bat egiten du, irakaslea txunditzeko helburuarekin. Thomasek ezin ditu erleen ziztadak jasan eta huskeria honek filmaren norabidea guztiz aldatuko du.

Vedaren aitak Shelly izeneko emakume makilatzailea ezagutzen du eta bere lnean sartzeko eskatzen dio. Laster harekin maiteminduko da, baina orduan hasiko dira neskatxaren abenturak, elkarren artean sortuko den harreman hori apurtzeko asmoz.

### *7.2.6. E.T.*

Steven Spielbergek zuzendutako zientzia fikziozko film klasiko hau 1982.urtean grabatu zuten, Ameriketako Estatu Batuetan. Bertan, Elliot mutiko bakartiaren istorioa kontatzen da.

Gau batean, Elliot txikiak izaki berezi, lotsati eta sentibera topatzen du basoan. Etengabe ezkutatzen saiatzen da eta ingurua arakatzen du barraskiloarenak dirudite n bi begi beldurti eta arraroekin. Ez da gizakia ezta animalia ere. Zlantzarik gabe,

kanpotik datorren izaki berezia da ET, lurrean galduta dago eta zerbaiten bila dabilela dirudi. Ez da arriskutsua eta zeharo izututa dago. Elliot hunkituta, etxera eramaten du babesa emateko asmoz. Hirigunetik kanpo dagoen auzo behartsu batean bizi da eta helduengandik gordetzea da bere asmoa.

Bien artean laguntasun harreman estua sortuko da eta gogoa, nahiz zentzumenak alderdi fisikotik haratago elkartuko zaizkie. Bapatean ET gaixotu eta hil egiten da, etxetik oso urrun dago eta Eliotek bere galera eta sufrimendua harekin pairatzen du. Biek duten aukera bakarra, izarrei laguntza eskatzea bada ere, arazo gehiago sortzen dira, ikerlari eta estatuko segurtasuna bermatzeko kide talde bortitz bat ETren atzetik bait dabil…

*7.2.7. Avatar*

Estatu Batuetan James Cameronek 2009. urtean sortu zuen aventura, eta zientzia fikziozko film honen pertsonaia nagusietako bat da Jake, orain gurpildun aulkian dagoen marine ohia da, nahiz eta gorputza ezindua eduki, bihotz borrokalaria du oraindik.

Pandorara bidaiatzeko aukeratua izan da Jake, bertan lurrak dituen energía iturri eskasiekin bukatuko duen mineral berezia ustiatzen ari diren lekura. Bertako atmosfera toxikoa denez, Avatar programa sortu dute, bertan gizakiak avatar delako pertsonaia bati lotuta daude, kontzientziaren bidez. Avatar hauen ADNa gizaki eta Pandora bertako izakienak konbinatuz osatuta dago. Bertakoa Navi izenez ezagutzen dira eta Jacken misioa Navien artean infiltratzea izango da, hauek minerala eskuratzeko oztopo nagusi bihurtu bait dira.

Naytiri izeneko neska gazte eta ederrak bizia salbatzen dio Jacki eta egoera guztiz aldatuko da. Bertakoen taldean onartu egiten dute, haien moduan bizitzen ikasten du eta proba nahiz aventura ugari bizitzeko aukera ematen diote.

Bien arteko harremana handitzen den neurrian, Jackek Navyen bizitza errespetatzen eta maitatzen hasten da, hauen artean bere lekua topatzeko grina pizten zaiolarik.

Laster, borroka gogoangarri bat zuzentzea egotziko diote, bere mundo berriaren patua baldintzatuko duelarik.

### *7.2.8. Errege lehoia*

1994. urtean Estatu Batuetan Disney-k sortu zuen animaziozko film famatua da aipaturiko azken hau. Bere pertsonaiak, animazioak eta musikak filma ahaztezina bihurtzen dute. Simba izeneko lehoikumearen abenturak kontatzen ditu, bere nahirik amestuena errege izatearena, alegia, lortzeko bidean. Baina bide horretan, bere osaba den Scar lehoiarekin topo egin eta bere asmoak zapuztu egiten ditu, izan ere, bere ametsa Simbaren berdina da.

Hori dela eta, erreinutik herbesteratu behar izaten du txikiak. Bakarrik eta noraezean egonda, Timon izeneko surikato dibertigarria eta Pumba basurdearekin topo egin eta laster bihurtzen dira lagun minak. Berehala ohituratzen da “Hakuna Matata” izeneko bizitzeko erritmo lasaira, bere ardurak ahaztuz.

Halako batean, bere patua zein den jabetzen da eta Harrotasunaren Erreinura itzuli egiten da, “Bizitzaren gurpilan” dagokion lekua betetzera.

### *7.2.9. Proposamen didaktikoak*

Aipaturiko filmen bilduma honekin, nahiz gaiarekin lotutako beste hainbat era pedagogikoan landu ahal izateko zenbait jarduera egin daitezke eskolan:

- Pelikulan eskeintzen den arazoa aztetu.
- Haurrekin, adopzio, bereizketa edota gertuko heriotzak gogorarazi.
- Instituzioek eta zerbitzu ezberdinek duten ezinbesteko papera goraipatu.
- Haurren eskubideei merezi duen garrantzia eman.
- Gizagabekeria ezberdinak antzematen lagundu, sentimendu enpatikoak baloratuz.

- Filma bakoitzean parte hartzen duten pertsonaien izaera eta erantzunak identifikatu eta aztertu.

Interesgarria izan daiteke filmak ikusi ostean burutzeko lanerako gidak sortzea, hauen azterketa eta hausnarketa gauzatu ahal izateko. Aipaturiko proposamenez gain, ikaslea eguneroko bizitzan topa ditzakeen egoerak ulertzen laguntzea da gida honen helburuetako bat. Gidoia aztertzeaz gain, egitura teknikoak, helarazten dituzten balioak edota filma kokatzen den testuingurua izan daitezke aztergaietako batzu.

## 7.3. Arte plastikoak

### *7.3.1. Mandalak*

Artea oso baliagarria izan daiteke meditazioa eta kontzentrazioa lantzeko. Edonork prestakuntza barik egin dezakeen artelana, marrazkia bera ere, onuragarria da lasaitzeko. Terapia egiteko era bat da margoztea, arte-terapia egiteko era bat. Mandalak terapia horien barruan sartzen dira. Barne oreka berreskuratzeko, norbere burua ezagutzeko eta barne sosegua eta lasaitasuna lortzeko baliagarriak izan daitezke. Mandalak margotuz, kontzentrazioa lantzen da, eta eguneroko arazoez ahaztu eta norbere sormenaren emaitzez gozatzen da.

Indarren arteko oreka irudikatzen duten irudiak dira mandalak. Duela milaka urte sortu ziren Tibeten, budismoan eta hinduismoan. Hainbat kulturetan, baina, mandalen antzeko errepresentazio sinbolikoak izan dira: Amerikako Navajoek, Aztekek, Inkek... eta Australiako aborigenek ere antzeko irudiak zituzten. Erdi Aroko eliza kristauetako beirate eta leiho biribiletan ere, mandalen antzeko irudiak ikus daitezke. Zibilizazio ugaritan eta duela milaka urte jaiotako artea da, beraz, mandalena.

Mandalen **onurak:**

Sormen jarduera baten aritzeak on egiten die depresioa, estresa, dolua, isolamendua edota antsietatea bizi duten pertsonei. Horrelako egoeretan dauden pertsonei, kosta egiten zaie gozamen uneak bizitzea, eta euren sormenarekin zerbait egiteko gai direla ikusteak on egiten diela diote adituek.

Mandala margozteaz gain, marraztea ere gure esku egon daiteke. Borobila eta simetria ardatz, gauza dotoreak irten daitezke. Adituek diote, hori egitean, hitzez azaldu ezin diren kontuak azaleratzen ari garela.

Arte-terapiako adituek, zera diote, ezaugarri interesgarri bat dutela artearekin lotutako terapiek: ez da beharrezkoa hitzez adieraztea, eta ez-hitzezko komunikazioak ez duela gezurrik esaten. Euren ustetan, pertsona baten lanean islatzen denak pertsona horri buruz hitz egiten du, beti egia esanez. Beraz, mandalak interpretatuz pertsona baten barne-egoeraren zantzu batzuk izan ditzakegu (4. eranskina).

### *7.3.2. Zuhaitz genialogikoa*

Egun, familiako aiton-amona edota birraitonen informazioa bilatzea lan interesgarri bezain motibatzailea izan daiteke haurrentzat, honen aurkezpena egiten den moduaren arabera.

Egungo familia moten aniztasuna kontutan hartuta, zuhaitz mota oso anitzak osatzeko aukera ematen dituzte, haurra hauetaz jabetzeko aukera ezin hobea eskeiniz.

Sarritan, haurrek bere izeba, lehengusu edota beste gertuko senitartekoen izenak ere ez dituzte ezagutzen, beraz, abizenak are gutxiago oraindik. Era honetan, guztien izenak ezagutzeaz gain, hauek familian betetzen duten papera edota lekua deskubritzen dute zuhaitz hauen bitartez.

Hona hemen zuhaitz genialogikoaren adibide bat:



## ONDORIOAK

Desadostasun handia dago eskolan heriotzari eskaintzen zaion arretaren eta haurrak ematen dionaren artean. Denok, haurrak eta gazteak barne, kontura gaitezke heriotzaren ezkutatzeaz. Gurasoak nahiz irakasleak gai honen gainean informatu, baita formatzea beharrezkoa da. Galeraren bat izaten dugunean edo beste norbaitek halako egoera bat jasaten duenean, egoera horri aurre egiteko tresnak falta zaizkigu.

Gai ezberdinak lantzen dira eskolan, baina oraindik heriotza, galera edo doluari aurre egiteko jarrera, sentimendu eta balioak ez dira behar bezain beste jorratzen, giza errealitatearen beste arloekin alderatuta. Giza oinarri nabarmena duten eta pertsonen arteko harremanekin zerikusi handia duten ikasketa askotako curriculumetan, gehienetan sahiestu egiten da gai hau.

Gure jardunean, helduok heriotzaren gaia ukatzeko jarrera erakusten diegu txikiei, eta horrela, bere baliabideak sortzeko aukera guztiak kentzen dizkiegu. Beraz, hezkuntza elkarteak, gai honen inguruan ikasleei zein irakaskuntza mota eskeintzen ari garen planteatzea guztiz afera gomendagarria iruditzen zait.

Txiki-txikitatik hasi beharko litzateke heriotzaren pedagogia lantzen, baldin eta adin bakoitzean gauzak ulertzeko dauzkagun gaitasunak errespetatzen baditugu. Gure helburua ez da haurra heriotzatik babestea izan behar, baizik eta txikitatik heriotzaren egiazko izaeraz ohar dadin laguntzea.

Gauzak horrela, dolu prozesuan dagoen haur bati laguntza egokia emateko orduan, hainbat aspektu izan behar dira kontutan. Hasteko, eskolan eguneroko bizitzarekin ahalik eta normaltasun gehiena mantentzea, aldi berean malgutasuna erakutsiz. Era honetako egoeren hasieran bereziki zaila izaten da eguneroko errutinak errespetatzea, baina, hauek ahalik eta normaltasun handienarekin zaintzen baditugu, haurraren garapen, autoestima eta segurtasunean era positiboan eragin dezakegu.

Honetaz gain, familia eta eskolaren arteko komunikazio harremana mantentzea ezinbestekoa da haurraren galera prozesua era osasungarri batean aurrera eramateko. Elkar harreman honek, etxean duen egoeraren berri eta honen ondorioz sor daitezkeen erantzunak hobe ulertzen lagunduko bait digu. Aldi berean, eskolan

konfidantzazko heldu baten laguntza edo babesa izatea oso baliagarria izaten da dolu prozesuan aurkitzen den haurrarentzat, izan ere eskolan ordu asko ematen ditu eta bertan, momentu zail eta gogorrak bizi ditzake.

Goraipatzekoa da, lan osoan zehar azaldu bezala, dolu prozesua galera esanguratsu bat izan osteko prozesu naturala dela. Honen iraupena edo denboran luzapena persona bakoitzarengan ezberdina bada ere, hamabi hilabete ingururen buruan, dolu prozesua bukatutzat eman daiteke, horretarako fase edota pasusu bakoitza era osasungarrian gainditzea ezinbesteko baldintza izango delarik. Hala ere, batzuetan dolu prozesua era patologikoan amaitzen den kasuetan, laguntza edo aholkularitza profesionalaren esku hartzea ezinbesteko suerta daiteke.

Heriotza eta doluaren gaineko pedagogia gero eta ezagun eta erabiliagoa bada ere, oraindik ezjakintasun handia dago irakasle taldearen barruan. Zorionez, gaiarekiko kezka nabarmen zabaltzen ari den interes orokorra izanik, eskuragarri daude horretan formatu edo hausnartzeko aukera desberdinak.

Lanari amaiera emateko, heriotzaren pedagogiaren ildotik lan egin ahal izateko hainbat baliabideren zerrenda dago esluragarri. Hauek hiru taldetan bereiztu ditut, alde batetik, irakurgaiak, filmak eta azkenik, baliabide plastikoak. Beste arlo desberdinak edota hauek gehiago osatzea da nire jardunaren helburuetako bat. Nahiz eta osaturiko zerrendan proposamen anitzak topatu, baita hauekin ondorengo hausnarketa edo eztabaida sustatzeko aukera eskeini, musikarekin edota olerkigintzarekin lotutako baliabideak jasotzea ere oso erabilgarria izan daiteke. Bestalde, irakurgaiei dagokion atala gehiago osatzeko asmoa izan arren, Ermuako Liburutegiak sortutako doluaren inguruko bibliografía txostena sartzea erabaki dut, izan ere, bertan, adinaren arabera sailkatutako hainbat irakurgairen bilduma osatuaren proposatzen egokia topa daiteke. Bilduma osatzen duten liburuen zerrendaren aukeraketa oso zaindua dela kontutan izanik, bertako edozein irakurgai aukeratzea erraza suerta dakioke, heriotza eta doluaren gaia era pedagogiko batean landu nahi duen edozein pertsonari, hezkuntza komunitateko partaide izan ala ez.

## CONCLUSIONS

There is a huge disagreement between the attention we pay in the school to death and the attention children give to it. Everyone, youth, even children, can notice that we avoid talking about death. Families and teachers should find out much more and also learn about this issue. When we loss someone, we feel like we do not have tools to rise up, or even when others are suffering a similar situation. Thus, we have serious problems to overcome the trouble.

We work over different subjects in the school, but so far death is not being studied as naturally as other human reality´s matters. Even if we focus in the curriculum of some subjects, wherein, we work on the relationship between human beings and have a marked humanistic base, we could notice that we avoid this theme.

Our attitude transmits to children to keep clear of this theme; drawing out the chance they have to develop their own resources. Therefore, I think that The Educational Community must outline the kind of learning we are teaching to the pupils over this issue.

We should work on the death´s pedagogy since childhood, always bearing in mind the age and so, respecting the ability children may have to understand this kind of matters. Our aim should not be to protect children from death, but to become aware of its meaning.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK


- Almenara, Cabero J. (2003) Educación en valores y cine, Making off. "*Cuadernos de cine y educación*", 20 znb.
- Amades Joan. (1982-1984) "Costumari català. El curs de l'any" Salvat-Edicions 62, Bartzelona.
- Ameriketako Psikiatria Elkartearen Diagnostiko eta Estadistikoaren azken bertsioa. 2009.
- Bleichmar, Hugo. (2010) Una reformulación del duelo patológico: múltiples tipos y enfoques terapéuticos. "*Revista Internacional de Psicoanálisis*", 35.znb.
- Caracuelek. (1983) "Actitudes ante la muerte y los enfermos terminales en los estudiantes de Enfermería de la Escuela Universitaria de Córdoba". Tesia
- Cassals Anna María, Ascensió de García Leticia, Barreto Martín P..... 2012 "*Duelo y escuela: Educar en el sentido ante la pérdida*" Bartzelona.
- Cátedra, María. Sobre figuras históricas. "La Revista de Avila".1999.eko ekainaren 27, .12.orr.
- Cortina, Selva Mar. (2010) *"El cine como recurso didáctico de educación para la muerte: Implicaciones formativas para el profesorado*". Madrilgo Unibertsitate autonomoko irakaslego eta hezkuntzaren formakuntzarako Fakultatea. Doktoretza tesia.
- Cortina, M., y Herrán A, de la. (2005) Cine y educación para la muerte II. Making off. "*Cuadernos de Cine y Educación*", 36 znb.
- Cortina, M. ; De la Herrán, A. y Nolla, A. 2009. Propuestas para anticiparse al duelo. *"Cuadernos de pedagogía"*. , 388 znb. 68-75 orr.
- De Unamuno M. (1913) "Del sentimiento trágico de la vida", Madril.
- Durant A., Glori D. (2003) *"Betiko*", Ttarttalo.
- Izagirre, Patxi. (2008), Haurrei heriotzaren aurrean minaren adierazpena normalizatzen lagundu behar diegu. *"Hik Hasi"* 130. alea.

- "Eskola barneko bizikidetza eta errespetua" 204/2010 foru legea.
- "*Explícame qué ha pasado Guía para ayudar a los adultos a hablar de la muerte y el duelo con los niños. Proyecto aprendiendo a vivir explicando el morir"*. (2012). Fundación Mario Losantos del Campo, Parcesaren laguntzarekin.
- Gala León, F.J., M. Lupiani Jiménez, R. Raja Hernández, C. Guillén Gestoso, J.M. González Infante, Mª.C. Villaverde Gutiérrez eta Alba Sánchez. Actitudes psicológicas ante la muerte y el duelo. Una revisión conceptual. *"Cuadernos de Medicina Forense"*; 2012.ko urr. 30.
- Gala F.J., Lupiani M., Bernalte A., Gómez A., López-López J.A., Miret M.T., Lupiani S. eta Barreto MC. (1991) "*Grupo de Investigación Psicología de la Salud*", Cadizko Unibertsitatea.
- "Heriotza ulertzen laguntzen diguten ipuinak". (2012). Ermuako liburutegiak.
- Herrán A., De La y Cortina M. (2006) "La muerte y su didáctica. Manual para educación infantil, primaria y secundaria", Universitas, Madril.
- "HIK HASI Heriotza heziketan. Udako topaketa pedagogikoak", 12. monografikoa. 2003ko uztaila. Xangorin Argitaletxea.
- Holland Rutherford A.F. (2008). "Reflexiones sobre la Muerte: El Duelo Infantil y el Suicidio Juvenil. Psicología Iberoamericana", vol. 16, nº1, pp. 8-14. Universidad Iberoamericana, Ciudad de México, Mexico.
- Iturbe, Arantxa. (2003) "Las estrellas no conceden deseos" Bilbo.
- Meza D.E.G., García S., Torres G.A., Castillo L., Sauri S.S., Martínez S.B. (2008) "El proceso del duelo. Un mecanismo humano para el manejo de las pérdidas emocionales. "Revista Especializada Medicina Quirúrgica"; 13(1):28-31.
- Morin E. (2007)."El hombre y la muerte" Paris.
- Poch Avellan, Concepció. (2009) ¿Por qué es necesaria una pedagogía de la muerte? *"Cuadernos de pedagogía"*, 388 znb., 52-53 orr.
- Ramon E., Osuna R. (2003) Ez da erraza, kattagorri. Kalandraka
- Ramos R., (2010) "Las estrellas fugaces no conceden deseos", Ediciones Tea.

**ERANSKINAK 1.**








Igaraba, satorra, azeria eta erbia
elkarrekin bizi ziren etxe batean.
Igarabak oso janari gozoak prestatzen zituen.
Satorrak egiten zituen etxeko konponketa guztiak.
Erbiak, berriz, loreak zaintzen zituen,
eta baratzeko lanak egin ere bai.



Baina egun batean, azeria gaixotu egin
zen; gero eta argalago eta tristeago zegoen.
Eta goiz batean, basoan barrura joan zen
bakar-bakarrik. Eta ez zen gehiago itzuli.


Lagunek, tristuraz beterik, etxera eraman zuten
azeria, eta gauean, ilargiaren argitan, lurperatu
egin zuten berari gehien gustatzen zitzaion
lekuan: sahats arbola baten azpian. Sahatsak
hostoak bota zizkion gainera. Igarabak, satorrak
eta erbiak negar egin zuten azeriari azken
agurra egiterakoan.





gogoan denek. Hura gabe ez zekiten zer egin.
—Hain zen jakintsua! —esan zuen igarabak—.
Arazoren bat nuenean, azeriak laguntzen
zidan bere aholkuekin.

—Eta hain zen azkarra! —jarraitu
zuen satorrak—. Edozer
galderarentzat zeukan
erantzuna.



Azeriari buruzko
gauza hauek guztiak
gogoratzean, haren gero eta
behar handiagoa nabaritzen
zuen familia osoak. Hari buruz
hitz egiten zuten bakoitzean,
penaz lehertzeko zorian jartzen
zitzaien bihotza. Horregatik
egon ziren denbora luzez isilik
familia hartako hiru kideak.


Halaxe iragan zituzten gauak eta egunak.
Basoko etxe hartan ez zegoen tristura besterik.
Etorri zen elurra, eta joan ere bai.
Eta hostoz jantzi ziren berriro zuhaitzak.


Udaberriko arratsalde batean, katagorria azaldu zen.
—Non sartu zarete, baina? —galdetu zien—.
Aspaldian ez zaituztegu ikusi ere egiten.
—Goibelegi geunden etxetik irteteko —erantzun zion satorrak.
—Asko gogoratzen gara azeriaz, asko… —esan zion erbiak.
—Baita gu ere —erantzun zuen katagorriak—. Baina


u zen.
on satorrak.
n erbiak.
—Baina guri azeria falta. Eta hura gabe zail da
bizitzen jarraitzea —esan zuen Igarabak, eta negarrez hasi zen.
Satorra eta erbia ere bai. Katagorria saiatu zen lagunak
animatzen, baina alferrik.
Hala ere, pozik zeuden


Igarabak aspaldi ez bezalako afaria
prestatu zuen egun hartan.
—Oso itxura ona du —esan zuen katagorriak.
Hori esan eta aulkian eseri zen irribarrez.
Eta honela jarraitu zuen gero:
—Ba al dakizue zertan ez zen batere ona azeria?
Janaria prestatzen.


—Gogoratzen al duzue nolako patata-tortilla
prestatu zigun behin? Txarra benetan.
—Bai —esan zuen Igarabak, eta irribarrea atera
zitzaion azeriaren patata-tortilla gogoratzean—.
Patatak gordinik zeuden, eta arrautza erreta.
Ez zen sukaldari ona, ez.


—Eskulanean ere ez zen trebea —esan
zion erbiak satorrari —. Gogoratzen
nola aritu zen behin aulki bat egiten?
—Bai —erantzun zion satorrak—. Azeria
esertzearekin batera hautsi zen aulkia.
Nahiko barre egin genuen denok, eta
azeriak gehiena.



—Eta zu gaixo zeundelako azeria belar txarrak ateratzera baratzera joan zeneko egun hartakoa? —esan zuen satorrak erbiarengana zuzenduz—. Belarraren ordez azenarioak atera zituen.



Zelebrekeria haiek gogoratzean, barre egin zuten denek. Denbora asko zeramaten igarabak, satorrak eta erbiak barrerik egin gabe. Azeria gaixo jarri aurretik, ordea, ez zen barrerik falta izaten etxe hartan. Eta azeria bera zen gehien egiten zuena.





—Ba al dakizue gauza bat?
—esan zuen erbiak handik pixka
batera, ezpainetan irribarrea zuela—.
Azeriarentzat jardin txiki bat egin
behar dut sahatsaren azpian.
Azenarioak ereingo
ditut han.


—Eta nik, denok esertzeko, aulki
bat egingo dut jardinean




—Ba, nik patata-tortilla egingo dut hilean
behin azeriak egiten zuen bezala
—jarraitu zuen igarabak.
—Aizu, baina arrautza erre gabe, e? —esan
zion katagorriak.
—Noski, ba —esan Igarabak—. Azeriari
gustatzen zitzaion bezalakoa egingo dut.
Eta esandako gauza guztiak
egin zituzten.


Handik aurrera, azeriaren jardinean elkartu
eta satorrak egindako aulkian esertzen
ziren. Igarabak prestatutako patata-
tortilla goxo-goxoa jaten zuten,
iragandako gauzak
gogoratuz. Barre egiten
zuten, eta iruditzen zitzaien
azeria ere hantxe zegoela
beraiekin barrez.







**ERANSKINAK 2.**


La muerte
CUENTOS QUE AYUDAN A COMPRENDERLA
Heriotza
ULERTZEN LAGUNTZEN DIGUTEN IPUINAK


Elefantea gelan
El elefante en la sala
Txabi Arnal Gil
(2012-12-04)
Terry Kettering-en El elefante en la sala (The elephant in the room) olerkiak dio etxe guztietako egongelan elefante handi bat bizi dela, nahiz eta inoiz kasurik egiten ez diogun, eta ez diogu kasurik egiten bere presentzia guztiz deserosoa gertatzen zaigulako.
Edozertaz hitz egiten dugu, baita lanpasak erostean norbaitek duen gustuaz ere, gure etxeko egongelan bizi den izugarrizko elefante hori aipatu baino lehen. Eta elefantea hazi eta hazi egiten da. Eta kakahueteak lapurtzen dizkigu. Eta batzuetan, airea ere bai.
Gure esku dago elefantearekin bizitzen ikastea, elefantetxo bihurtzea, tabu-izaera hori kentzea, horixe delako hain zuzen eta nahi barik egiten ari garena: tabu bihurtzen dugu ohikoa, naturala, saihestezina, unibertsala eta ezinbestekoa dena, nahiz eta tristezia handia sortzen duen.
Dice el poema de Terry Kettering, El elefante en la sala (The elephant in the room), que en el cuarto de estar de todas las casas habita un gran elefante al que obviamos, pues su presencia se hace especialmente incómoda.
Hablamos de cualquier cosa, incluso del gusto de alguien a la hora de comprar felpudos, con tal de evitar nombrar a ese enorme elefante que habita en el salón de nuestra casa. Y el elefante crece y crece. Y nos roba los cacahuetes. Y, en ocasiones, hasta el aire.
En nuestras manos está aprender a convivir con el elefante, convertirlo en elefantito, despojarle de su condición de tabú. Porque eso es, precisa y paradójicamente, lo que estamos haciendo: convertimos en tabú aquello que, a pesar de la carga de tristeza que conlleva, no deja de ser habitual, natural, ineludible, universal y obligatorio.
Hitz egin dezagun gure etxeko egongelan bizi den elefanteaz.
Hitz egin dezagun heriotzaz.
Eta baita literaturaz ere.
Hablemos del elefante que vive en el cuarto de estar de nuestra casa.
Hablemos de la muerte.
Y también de literatura
TOSHIBA





Edad
0-6
Urte

**Como todo lo que nace**

*Brami, E. - Schamp, T. (Kókinos, 2000)*
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y ciclo de la vida
**Protagonistas**: varios (humanos, animales y vegetales)
**Protagonista difunto**: varios (humanos, animales y vegetales)
**Causa de la muerte**: natural, enfermedad y violenta

**Betiko**

*Durant, A. - Gliori, D. (Ttarttalo, 2005)*
**Generoa**: albuma
**Gaia**: heriotza eta oroitzapenak
**Protagonistak**: animalia humanizatuak
**Hildako protagonista**: aita (azeria)
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna

**La Mora**

*Garabana, A. - Villán, O. (Kalandraka, 2005)*
**Sinopsis**: Poesía acumulativa de estructura circular que ejemplifica la estrecha relación que une la vida y la muerte de sus protagonistas.
**Género**: álbum
**Gaia**: muerte y ciclo de la vida
**Protagonistas**: varios (humanos, animales, vegetales y otros)
**Protagonista difunto**: varios (humanos, animales, vegetales y otros)
**Causa de la muerte**: natural y violenta
**Otros**: poesía popular acumulativa

**Abuelo, ¿dónde estás?**

*Mantoni, E. (Everest, 2003)*
**Género**: álbum
**Tema**: muerte e incomprensión del niño/a
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: abuelo
**Causa de la muerte**: natural



Edad 6-9 Urte

**El último canto**
*Albo, P. (OOO, 2009)*
**Sinopsis**: Todas las mañanas, el gallo de Filiberto y Sacramento subía al campanario y cantaba: «Oh sole mio…» Así fue durante muchos años, tantos que parecía que siempre sería igual. Pero el gallo poco a poco fue haciéndose viejo y una noche cerró los ojos para dormir…
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y duelo
**Protagonistas**: humanos y animales
**Protagonista difunto**: gallo anciano
**Causa de la muerte**: natural

**Mi miel mi dulzura**
*Piquemal, M. - Nouhen, É. (Edelvives, 2005)*
**Género**: álbum
**Gaia**: muerte y recuerdo
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunta**: abuela
**Causa de la muerte**: natural
**Otros**: otras culturas

**Aitaren bihotza**
*Santisteban, K. (Desclée de Brouwer, 2009)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta oroitzapena
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: aita
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna

**Hiltzen bazara, ikusiko duzu…**
*Calleja, S. (Ibaizabal, 1994)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta oroitzapena
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: bat ere ez
**Heriotzaren zergatia**: ez dago heriotzik
**Bestelakoak**: desmitifikatzailea

**¡Buenas noches, abuelo!**
*Bausá, R. - Peris, C. (Lóguez, 2004)*
**Género**: álbum
**Tema**: muerte como liberadora de dolor del enfermo
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: abuelo
**Causa de la muerte**: enfermedad

**Aitatxo balkoian dago**
*Calleja, S. (Desclée de Brouwer, 1997)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: gaixotasuna eta heriotza
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: aita
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna

**Agur, amona!**
*Company, M. - Elena, H. (Elkar, 1994)*
**Generoa**: albuma
**Gaia**: heriotza eta bizitzaren zikloa
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: amama
**Heriotzaren zergatia**: naturala
**Bestelakoak**: didaktikoa



**Más allá del río**
*Beuscher, A. - Haas, C. (Juventud, 2004).*
**Sinopsis**: Una liebre, sabedora de que su final está muy próximo, anuncia a su amigo el mapache su necesidad de realizar un viaje en el cual nadie le puede acompañar: debe cruzar el Gran Río.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y amistad
**Protagonistas**: animales humanizados
**Protagonista difunto**: amigo (liebre)
**Causa de la muerte**: sin especificar

**Gajos de naranja**
*Legendre, F. - Fortier, N. (Tándem, 2008)*
**Sinopsis**: Todas las mañanas el abuelo Pepe Juanito despierta a su nieta Petra ofreciéndole un gajo de naranja, y susurrándole preciosas palabras al oído. Por la tarde, al regreso de la escuela, el anciano espera a la niña sentado bajo la fresca sombra de un olivo. Pero un triste día de mayo nadie espera bajo el olivo.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y enfermedad
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: abuelo
**Causa de la muerte**: enfermedad

**Te echo de menos**
*Verrept, P. (Juventud, 2001)*
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y duelo
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunta**: abuela
**Causa de la muerte**: natural
**Otros**: narrado en primera persona

**Ez da erraza, katagorri**
*Ramón, E. - Osuna, R. (Kalandraka, 2003)*
**Sinopsis**: Ama galdu berri duen urtxintxa txiki batek gainditu behar dituen dolu-garaiak zehazten dituen narrazioa.
**Generoa**: albuma
**Gaia**: heriotza eta dolua
**Protagonistak**: animalia humanizatuak (urtxintxak)
**Hildako protagonista**: ama
**Heriotzaren zergatia**: zehaztu gabe

**Baltaxar inoizko astorik bakartiena**
*Misschaert, I. (Ttarttalo, 2010)*
**Generoa**: albuma
**Gaia**: heriotza eta doluaren gainditzea
**Protagonistak**: animalia humanizatuak
**Protagonista difuntoa**: ama
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna

**Norbait deika ari zait**
*Taniuchi, K. (Hiria, 2006)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta oroitzapena
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: amona
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna
**Bestelakoak**: beste kultura batzuk



### ¡¿Cómo es posible?! La historia de Elvis

*Schössow, P. (Lóguez, 2006)*
**Sinopsis**: Una niña sufre la pérdida de su mascota, el canario Elvis. No entiende lo sucedido. Necesita que alguien se lo explique, y que, a la vez, la acoja y comparta su dolor.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte, amistad y apoyo en el duelo
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: mascota (canario)
**Causa de la muerte**: sin especificar
**Otros**: humor

### Nana vieja

*Wild, M. - Brooks, R. (Ekaré, 2000)*
**Género**: álbum
**Tema**: preparación ante la muerte
**Protagonistas**: animales humanizados
**Protagonista difunta**: abuela
**Causa de la muerte**: natural

### La caricia de la mariposa

*Voltz, C. (Kalandraka, 2008)*
**Sinopsis**: Mientras trabajan en la huerta, un nieto pregunta a su abuelo acerca del paradero de la abuela, ya fallecida. Con mucha ironía y humor, el anciano hará partícipe a su nieto de sus ideas sobre la muerte y el "después".
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y más allá
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunta**: abuela
**Causa de la muerte**: sin especificar
**Otros**: humor

### El cielo del cisne

*Tejima, K. (Juventud, 1992)*
**Sinopsis**: Una manada de cisnes detiene su migración hacia el norte debido a que uno de sus jóvenes integrantes no está en condiciones de continuar el viaje.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y familia
**Protagonistas**: animales
**Protagonista difunto**: hijo (cisne joven)
**Causa de la muerte**: enfermedad
**Otros**: otras culturas

### Regaliz

*Van Ommen, S. (Kókinos, 2005)*
**Sinopsis**: Dos amigos, Jorge y Óscar (conejo y gato respectivamente), quedan para jugar en el parque, hacer un pic-nic y comer regaliz. De repente, el color azul de una de sus golosinas les hace preguntarse acerca del cielo, la muerte, y la supervivencia de la amistad en el "más allá".
**Género**: álbum
**Tema**: muerte, amistad y más allá
**Protagonistas**: animales
**Protagonista difunto**: ninguno
**Causa de la muerte**: no hay muerte
**Otros**: desmitificador

### Ama!

*Zubeldia, I. (Giltza, 2006)*
**Sinopsia**: Beatriz askotan gogoratzen da amarekin, duela bi urte hil baitzen
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta oroitzapena
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: ama
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna



Edad
9-12
Urte

### Adio, adio!

*Añorga, P. (Elkar, 2003)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta dolua
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonistak**: ama eta semea
**Heriotzaren zergatia**: istripua

### El corazón del sastre

*Arnal, T. – Varela, C. (OQO, 2009)*
**Sinopsis**: El sastre siente un vacío inmenso dentro del pecho. Y como la vida ociosa de palacio no acaba de llenárselo, un día huye de su jaula dorada.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y sentido de la vida
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: anciano
**Causa de la muerte**: natural

### Jack y la Muerte

*Bowley, T. – Pudalov, N. (OQO, 2012)*
**Género**: álbum
**Tema**: muerte complemento de la vida
**Protagonistas**: humanos y la misma muerte
**Protagonista difunta**: madre
**Causa de la muerte**: enfermedad

### Estirar la pata (o cómo envejecemos)

*Cole, B. (Destino, 1996)*
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y reencarnación
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: ninguno
**Causa de la muerte**: no hay muerte
**Otros**: humor



**El pato y la muerte**

*Erlbrusch, W.*
*(Bárbara Fiore, 2007)*
**Sinopsis**: Un pato nota que últimamente algo extraño sucede a su alrededor, alguien lo sigue de cerca. Cuando averigua de quién se trata (es la muerte), se asusta y le pregunta si viene a por él.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte, amistad y más allá
**Protagonistas**: animal y la mismísima muerte
**Protagonista difunto**: pato
**Causa de la muerte**: enfermedad
**Otros**: desmitificador

**El barranco**

*Grassa Toro – Fermín, D.*
*(Thule, 2010)*
**Sinopsis**: Benito baja al barranco para buscar el reloj de su padre, quien allí murió a causa de un accidente.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte y madurez
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto:** padre
**Causa de la muerte**: accidente

**Humo**

*Fortés, A. - Concejo, J.*
*(OQO, 2008)*
**Sinopsis**: Un niño judío es enviado junto a su madre a un campo de concentración nazi. Allí será testigo del exterminio de muchos de sus compañeros, y del miedo de todos.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte, guerra y genocidio
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunto**: niño
**Causa de la muerte**: asesinato

**Aitona joan egin da**

*Fried, A. (Hiria, 2003)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta oroitzapena
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: aitita
**Heriotzaren zergatia**: naturala



**Rosa blanca**

*Innocenti, R. (Lóguez, 1987)*
**Sinopsis**: Rosa Blanca es una niña alemana a la que le corresponde vivir la ascensión del nazismo y la Segunda Guerra Mundial. Tropas y vehículos militares pasan a menudo por su pueblo. Su curiosidad la llevará a seguir a uno de esos camiones, y a descubrir que, en un claro del bosque, hay un campo de concentración.
**Género**: álbum
**Tema**: muerte, guerra y genocidio
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunta**: niña
**Causa de la muerte**: asesinato

**Ani y la anciana**

*Miles, M. - Parnall, P. (Fondo de Cultura Económica, 1992)*
**Género**: narrativa
**Tema**: preparación para la muerte
**Protagonistas**: humanos
**Protagonista difunta**: abuela
**Causa de la muerte**: natural
**Otros**: otras culturas

**Itsasargia**

*Meinderts, K. (Ttarttalo, 2007)*
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta oroitzapena
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: amama
**Heriotzaren zergatia**: naturala

**Miss Txatarra**

*Mendiguren, X. (Elkar, 2007)*
**Sinopsia**: Katixa txatartegian bizi da. Gogoko ez badu ere, amona askotan bisitatzen du eta amaren inguruan galdetzen dio.
**Generoa**: narratiba
**Gaia**: heriotza eta zurztasuna
**Protagonistak**: gizakiak
**Hildako protagonista**: ama
**Heriotzaren zergatia**: gaixotasuna (HIESa)


Palabras de caramelo
Moure Trenor, G. (Anaya, 2005)
Sinopsis: Kori es un niño sordo que vive en un campo de refugiados saharauis, y Caramelo, su amigo, un pequeño camello color canela
Género: narrativa
Tema: muerte y amistad
Protagonistas: humanos y animales
Protagonista difunto: amigo
Causa de la muerte: sacrificio
El libro triste
Rosen, M. - Blake, M. Q.
(Serres, 2004)
Sinopsis: Un padre acaba de perder a su hijo. La tristeza, el enojo y la añoranza se apoderan de un doliente que trata de superar su pena de diferentes maneras.
Género: álbum
Tema: muerte y duelo
Protagonistas: humanos
Protagonista difunto: hijo
Causa de la muerte: sin especificar
Otros: narrado en primera persona
El gran viaje del señor M.
Tibo, G. - Melanson, L. (Kalandraka, 2008)
Género: álbum
Tema: muerte y duelo
Protagonistas: humanos
Protagonistas difuntos: hijo y padres
Causa de la muerte: enfermedad y guerra
La muerte pies ligeros
Toledo, N. - Toledo, F. (Fondo de Cultura Económica, 2006)
Género: álbum
Tema: la muerte complemento de la vida
Protagonistas: humanos y animales
Protagonistas difuntos: humanos y animales
Causa de la muerte: violenta
Otros: otras culturas
Liburu guzti hauek eskuragarri daude Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan.
Todos estos libros están disponibles en las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi.


bibliotekaermua
www.ermua.es/biblioteca
biblioteca@udalermua.net
Ermuko Udal Liburutegia
Golenkale, z/g - 48260 Ermua
Tfnoa: 943 17 92 12
facebook
twitter
YouTube
flickr
TOSHIBA

**ERANSKINAK 3.**

# “Gutuna” ipuina

## Etapa: Haur Hezkuntza



Txakur batek etxe aurrean itxaroteko ohitura du. Egun batean, denbora asko itxaroten igaro ondoren, sagutxo bat pasatzen da handik eta zertan dabilen galdetzen dio. Txakurrak gutun baten zain dagoela erantzuten dio.

Sagutxoak enkargu bat egin behar du eta alde egiten du; txakurraren aurretik berriz pasatzen denean, hau oraindik gutunaren zain dago. Hori sarri gertatzen denez, sagutxoak txakurrari gutun bat idaztea erabakitzen du.

Horrela egiten du, eta barraskilo postariari ematen dio, txakurrari eramateko.





Gero sagutxoa korrika txakurraren ondora joaten da, eta haren ondoan itxaroten du. Handik gutxira, barraskiloa iristen da eta gutuna ematen dio txakurrari. Honek gutuna ireki eta irakurri egiten du. Gutunak dio:

*"Zure laguna naiz, zoriontsu ikusi nahi zaitut eta zu pozik egotea nahi dudalako idatzi dizut".*

Sinadura: *Sagutxoa*

### Aurkezpena eta helburuak

Ipuin honek bakarrik eta lagunik gabe gaudenean sentitzen dugun sufrimendutik abiatuta adiskidetasun sentimendua baloratzen laguntzen digu.

Lortu nahi ditugun helburuak honako hauek dira: besteen desioez ohartzea, zoriontsu izaten ahalegintzea eta besteei memento tristeetan laguntzea.

### Jardueraren garapena

1.- Ipuinaren aurkezpena irakaslearen eskutik.

2.- Ipuinari buruzko marrazkiak erakutsiz, kontaketa ulergarria eta adierazgarria egin.

3.- Txakurraren sentimenduez ohartu eta beroriei buruz hitz egin.

4.- Haurrak, txakurraren eta sagutxoaren paperean sartuta, sentituko luketena adierazteko gai diren jakiteko zenbait galdera egingo dizkiegu eta, kasu bakoitzean, bataren edo bestearen paperean zer egingo luketen galdetuko diegu.

5.- Adiskidetasunaren balorazioaz eta sufrimenduaz hausnartu: zer egin dezakegu guk lagun bat triste dagoenean?

# "Milaurte jauna" ipuina

## Etapa: LHko 1. eta 2. mailak
## Arloa: Hizkuntza eta tutoretza

Milaurte jauna oso gizon aberatsa, boteretsua eta ausarta zen. Bihotz onekoa zen eta eroso bizitzea gustuko zuen.



Dena ondo zihoakion eta oso harro zegoen bere bizitzaz, baina ez zuen gogoko bizitza bera hain laburra izatea. Beti esaten zuen asko gustatuko zitzaiokeela mila urte bizitzea.

Behin, neguko gau hotz eta euritsu batean, eskale gaixo bat bere gaztelura iritsi zen eta ostatua eskatu zion. Milaurtek barrura pasarazi zuen. Egur puska ederrak erretzen zeuden su baten ondora eraman zuen eta jateko zerbait eskaini zion. Eskaleak bidaia asko eginak zituen eta kontu asko zituen esateko. Milaurteri hitz-aspertuak asko gustatzen zitzaizkion eta, gauza askori buruz hitz egin ondoren, bizitza motzegia iruditzen zitzaiola esan zion eskaleari.

Orduan, eskaleak suaren ondoan zegoen egur puska eder bat erakutsiz, horrela esan zion:

- Zure bizitzak egur puska honek beste iraungo du.

Milaurtek, harrituta, egur puska suaren ondotik kenarazi zuen. Biharamunean, mendi baten tontorrean zegoen dorre bakarti batean lurperatu zuen enborra.

Urteak pasa ahala, jaunak bizitza aberats eta lasaiarekin jarraitu zuen.



Baina hainbeste zahartu zenez, indarrak galdu zituen pixkana eta mugitu ere ezin zen egin. Inguruko guztiak hil egin ziren, eta baita bere ondorengoak ere. Milaurte jauna inork ezagutzen ez zuen garaira iritsi zen, eta horrenbeste urte igaro zirenez eta hitz egiteko modua ere aldatu egin zenez, inorekin ezin zuen berbarik egin.

Etxeko jabeak aldatzen joan ziren, eta nahiz eta jabe berriek Milaurte ez ezagutu, beti errespetatu izan zuten. Jaun gaixoak, bizitzeko itxaropena galdu eta bere kabuz baliatzeko gai ez zenez, hil egin nahi zuen.

Milaurte jaunak, etsita eta ezer egiteko gai ez zela, urteak igarotzen ikusi zituen.

Behin, liburu zaharretan antzinako hizkuntzak ikasitako jakintsu bat iritsi zen gaztelura. Gazteluaren jabeek esan zioten etxean bazegoela oso era desberdinean hitz egiten zuen agure bat.

Jakintsuak oso gustura ezagutuko zuela esan zien eta Milaurte geldirik eta isilik egoten zen txokora eraman zuten. Berarekin hitz egiten hasi zenean laster ulertu zuten elkar.

Milaurte jaunak bere istorio tristea kontatu zion eta zuela mila urte lurperatutako egur puska lurpetik ateratzeko eskatu. Berehala joan ziren esandako lekura eta bantxe bertan aurkitu zuten. Etxera eraman eta sutara bota zuten.

Sugarrek poliki-poliki suntsitu zuten egurra eta Milaurte ere, hainbeste urtean hain bakardade handian bizi eta gero, poliki-poliki itzaltzen joan zen, goxo-goxo hil arte.

## Aurkezpena eta helburuak

Ipuin honen bidez heriotzaren gaian sartuko gara ipuinaren edukia lantzeko eta hausnarketa pertsonala egiteko.

Ahalik eta era lasaienean eta normaltasunez, estuasúnak alde batera utzita, heriotzaz, tentuz hartzeko gai horretaz, hitz egitea izango da helburua.

## Ekintzaren garapena

1.- Pertsonaiak taldeko partaideen artean banatuko dira: jauna, eskalea, senidekoak, lagunak eta jakintsua. Denek parte hartzea komeni da.

2.- Ipuinaren antzezpena.

3.- Mota honetako galderak egin eta landu:

* Milaurte jaunak zer dela eta ez zuen hil nahi?
* Zein abantaila eta zein eragozpen eduki zituen jaunak bere bizitza luzean?
* Zer dela eta hil nahi izan zuen azkenean?

4.- Zer egingo zenuke zuk Milaurte jaunaren egoeran egongo bazina?



# "Sekula loratu ez zen arrosa" ipuina

## Etapa: LHko 2. eta 3. mailak

## Arloak: Erlijioa eta tutoretza

Bazen behin udaberrian sortutako arrosa ernamuin bat, sekula loratu ez zena eta loratzea zer zen, jakin, ez zekiena. Tontortxo batean zegoen lorategi batean bizi zen senideekin. Arrosen kimu txikiena zen.



Eguzkiak goizero gauean egunsentiak utzitako ihintz ttanttak lehortzen zizkion eta bere kimu-irribarre alaiarekin horrela esaten zion:

Kimua harrituta zegoen inguruan horrenbesteko aldaketak ikusirik: ahizpa nagusiek belusezko azal gorria zeukaten, oso polita; eta ihintzak ukitzen zituenean perlaz betetzen ziren. Egunetik egunera pixka bat hazten ziren eta politagoak jartzen ziren.

Tximeletak loretegian zebiltzan. Txoriek kantu berriak abesten zituzten eta erleek entzunezinezko kexuak ateratzen zizkieten loretan zeuden arrosei.

Kimu txikiak ezin zuen ulertu arrosek zergatik egiten zuten negar mozten zituztenean.

Egun batean Eguzki amandreak horrela esan zion:

- Loratzeko, pixka bat sufritu egin beharko duzu, kimu txiki. Baina ez beldurrik izan! Nik lagunduko dizut!

- Zer da loratzea?- galdetu zuen kimuak.

- Loratzea da... -esan zuen Eguzkiak-…haztea, bizitzea, bizia ematea, norbait zoriontsu egitea eta.......hiltzea.

- Ai ene! - esan zuen kimuak ezer ulertu gabe.

Eta ondoren esan zuen:

- Zu loratzen al zara, Eguzki amandrea?

- Bai, egunero- erantzun zion Eguzkiak-. Nire lorea beroa eta maitagarria da. Kolore guztiak ditu, nire bihotza suzkoa delako. Loratzeak ez nau aspertzen, berotasuna emateak ez nau aspertzen. Ni nekatuko banintz.... bizitza bukatuko litzateke. Ai! Zenbat jende egiten dudan zoriontsu! Nik bizitza ematen dut.

- Ai! - esan zuen berriz arrosa kimu txikiak. Eta pentsakor gelditu zen.

Egun batean, laino batzuek loreari eguzkia ezkutatu zioten. Eta gero hodeiek negar asko egin zuten. Euria egin zuen.

Ainara Gil Abete

Kimu txikiak euriaren ispiluan ikusi zuen bere burua eta ia ez zuen ezagutu ere egin. Belusaren antzeko azal gorria antzeman zuen; zurtoina liraina eta gogorra zen; hostoek orlegi garbi eta barea zuten. Eta kimu txikiak bere barruan bizitza emateko zerbait apurtu zitzaiola nabaritu zuen. Loratzen hasita zegoen. Bere buruaz ahaztu egin beharko zuen eta norbait zoriontsu egin beharko zuen.

Lainoak desagertu zirenean eta Eguzki amandrea udaberriko indar guztiarekin agertu zenean kimua loratu egin zen eta lore-begia piztu zen.

Arreba nagusi guztiek atsegin handiz begiratu zioten. Gero eta gutxiago zen kimua eta gehiago zen arrosa. Eta oso belus fineko arrosa bat loratu zen.

Horrela esan zion Eguzki amandreak:

-Ulertzen al duzu loratzea zer den?

-Bai! - erantzun zuen arrosak, eta arrosen irribarrez egin zuen irribarrea.

Lorategia oso polita zegoen.

Eguzkiak laztandu egiten zuen eta arrosak bere kolorez eta bere usainez xuxurlatzen hasi ziren. Bizi, hazi...eta norbait zoriontsu egiteko gogoz zeuden.

Udaberriak dena inguratzen zuen bere musikarekin. Eguerdia zen. Ahots batzuk entzun ziren. Haur bi, Alaitz eta Peru, lorategian sartu ziren. Eskolatik zetozen. Peru, Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoa, arrosondora hurbildu zen, eta esan zuen:

- Begira, Alaitz! Begira zein arrosa polita!
- Bai! Loratu berria da!- erantzun zion bosgarren mailako Alaitzek.
- Amonarentzat hartuko dut! - esan zuen Peruk.
- Bai! Oso pozik jarriko da!- esan zuen Alaitzek.

Tximeletek eta txindurriek lorearen agur gozoa zurrumurru bat bezala entzun zuten. Erle batzuek bere janaria galdu zutela sentitu zuten; beste kimu batzuk hazten hasi ziren...



Eguzkiak laztanki esan zuen:

-Arrosa, norbait zoriontsu egingo duzu! Norbait zoriontsu egingo duzu!...

Eta belus fineko arrosa gorriak, Peruren eskuetan, irribarrea egin zion Eguzki amandreari.

Leihoko kristal atzean, beste arrosek ile zuriko amonatxo kuttun bat ikusi zuten, irribarretsu, esku dardaratsuez arrosa hartzen, begiak eguzkiaren argiz betetzen zitzaizkion bitartean.

### Ekintzaren aurkezpena

M. Dolores Codera Vistuerek idatzitako "Sekula loratu ez zen arrosa" ipuinaren bidez gazteek honako sentimendu eta balio hauek aurki ditzaten ahaleginduko gara:

* Bizitzaren opariengatik esker ona.
* Loratu, bizi eta hazteko desioa.
* Loratzeak dakarren sufrimendua.
* Heriotza hobea den bizitza bat bizi izateko da.
* Norbait zoriontsu egitea fruitua ematea da. Fruitua ematea bizitza ematea da.
* Ipuineko haurrek amona zoriontsu egitea.
* Heriotza, berez, ematea da.
* Hiltzea beste bizitza hobe batera esnatzea da.

### Helburuak

* Gazteek bizitzaren zikloa ez dela heriotzarekin bukatzen ulertzea.
* Gure bizitza lore baten bizitzaren antzekoa dela ohartzea: jaio, hazi, bizi eta hil egiten gara.
* Gazteen jarrera behatzea; zaharrak diren beren aitona-amonak gogoan dituzte eta pozik ikusi nahi dituzte. Pertsona nagusiekiko errespetuaz eta amodioaz konturatzea.
* Arrosak, hazten, bizitzen eta loratzen laguntzen diolako, eguzkiari eskerrak ematen dizkiola ohartzea.

### Ekintzaren garapena

1.- Irakasleak ipuina kontatu.

2.- Ikasleek, bakarka, ipuina irakurri.

3.- Ikasleek ipuinaren narrazio ulergarria eta adierazgarria egingo dute. Ikasleen arteko elkarrizketa bideratuko da.

4.- Eguzkiaren jarrera aztertu: beti bizitza eman egiten du.

5.- Bizitza ematen duten pertsonen jarrerak eta ekintzak bilatu.

6.- Kimuaren jarreraz ohartu: bizitzaren aurrean harridura, biltzen duenarekiko mirespena, bizipoza, norberaren buruaz ahaztu besteren bat zoriontsu ikusteko.

7.- Sufrimenduaren ulermena fruitua eman eta hazkunde pertsonala lantzeko. Arrosa ere hil egiten da, baina amonari poza eta alaitasuna ematen dio.

### Galdeketa

* Non bizi zen arrosa kimua?
* Zer egiten zion Eguzkiak goizero?
* Nola ematen zizkion eskerrak kimuak?
* Zergatik pentsatzen duzu arrosek negar egiten zutela mozten zituztenean?
* Zer esan nahi du norbere buruaz ahazteak?
* Norbait zoriontsu egitea garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik?

### Norberaren esperientziak

* Ikasleek beraiek bizi izandako heriotza esperientziak (bizi izandakoak zein entzundakoak) kontatuko dituzte: aitona-amonena, osabaren batena, txakur batena, lagun baten istripua...
* Bizi esperientziak ere kontatuko dituzte: lore baten jaiotza, arbola baten landaketa, haur baten jaiotza...
* Zer pentsatzen dute bizitzari eta heriotzari buruz?
* Zer esaten du jendeak horri buruz?

### Antzezpena

Narrazioaren zati bat antzez daiteke, aproposa ikusten bada.

### Plastika

Ipuinaren marrazketa bineten bidez.

Ipuinaren ideia nagusiekin horma-irudi bat osatu.

### Azken ideia

Loratutako kimua arrosa berri, sorpresa, bihurtuko da amonaren eskuetan. Maitasunez betetako zoriontasuna opari neurtezina da.



## ERANSKINAK 4.







